

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2018-10-19 OSTIRALA / 659. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



NAFARROA OINEZ
gehigarria
barruan!



...BIZI Oinez!

Ikastolen festa erraldoirako dena prest Altsasun / 12-13

Sakana Lanbide Heziketa institutuaren plan estrategikoak euskarari bultzada / 9

Sakana Digitalari bultzada emanen dion Irurtzango egoitzako lanak aurten hasiko dira / 5

Sakana guztiari zerbitzua emanen dion erradiologia gela mustu dute Altsasuko osasun etxean / 2-3

Sociedad Deportiva Alsasuak 50 urte bete ditu eta Montesinos, Riezu eta Lobo omendu ditu / 18-19

Arte Azoka, Sakanako artisten erakusleihoa, mustuko dute gaur lortia kultur gunean, 19:30ean / 21

'Oreina' filmaren protagonistetako bat da Patxi Bisquert Errotzen bizi den aktorea / 23

SAKANAKO BATZARRA

Urriak 25 19:00
Gure Etxea - Altsasu
2018-2019 plangintza



Fernando Dominguez osasun kontseilaria erradiografia zerbitzuaren berri jasotzen.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Mamen Perea teknikariak astelehen eguerdian egin zuen aurreneko erradiografia Altsasuko osasun etxean. Bera izanen da astegunetan erradiografiak egiteaz arduratuko dena, 11:40etik 19:00etara. Asteburuetan eta jai-egunetan beste lankide bat izanen da zerbitzu horren arduraria izanen duena, 10:00etatik 20:00etara.

Fernando Dominguez osasun kontseilaria presente zela, Altsasuko osasun-zentroko Erradiologia Zerbitzua astelehenean mustu zen. Dominguezek jakinarazi zuenez, Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun eskualdeetako 23.550 bat pertsonari zerbitzua emanen die erradiologia gela berriak. Horretaz aparte, osasun etxeko larrialdietara joaten diren gaixoei ere erabili ahal izanen dute. Osasunbideko arduradunak nabarmendu zuenez, Altsasun gela jartzeak beste osasun-zentroetara, eta bereziki Nafarroako hiriburukoetara, joan beharrik ez izatea ekarriko du. Osasun etxean aurrekusi dutenez, egunero 15 bat erradiografia egingen dira.

Erradiografiak, Altsasun egitera

Altsasuko osasun etxeak erradiologia zerbitzua mustu zuen astelehenean eta Sakana guztiari emanen dio zerbitzua. Osasunbideak Iruñera joan-etorriak saihestu eta medikuen erabakitzeko gaitasuna handitu nahi ditu

Dominguez "pozik" azaldu zen zerbitzu berriarekin: "osasunlaguntza eskuratzeko hobekuntza garrantzitsua da, joan-etorriak saihesten baititu eta Lehen Arretako taldeen erabakitzeko gaitasuna hobetzen asko laguntzen baitu". Azken horiei ere eskerrak eman dizkie haien ahalegin eta lanarengatik.

Inbertsioa

Erradiologia-ekipoa jartzeko, eraikina handitzeko obrak egin dira. 110 metro karratuko solairu berria eraiki da. Horretaz

aparte, orain arteko espazioak berriz banatu dira, irisgarritasuna eta erabiltzaileen arreta nahiz profesionalen lana errazteko helburuarekin. Osasunbideak 530.000 euroko inbertsioa egin du; horietatik 328.047 euro osasun-etxea handitzeko lanetara bideratu da, 197.890 euro X izpien aparatua digitala eta errobotizatua erosteko eta beste 4.075 euro gelako ekipamendua jartzeko. Zerbitzua martxan jarrita, Altsasuko osasun-etxeko plantillan erradiologian espezialista den teknikari baten

postua eta lanaldi murriztuko beste postu bat sortu dira.

Zerbitzuan erradiografia sinpleak egingen dira, batez ere patologia muskuloeskeletikoak (bizkar-hezurra barne) edo toraxen ingurukoak (katarro-prozesuak, pneumonia,...) baloratzekoak. Bestetik, hain ohikoak ez diren beste erradiologia-mota batzuk egin daitezke: gazezur, aurpegi eta sabelaldekoak.

Funtzionamendua

Erradiologian teknikari espezialista da Rafael Beorlegi, Zan-

gozako osasun etxean ari dena. Astelehenean Altsasuko mustutzean Perea laguntzen izan zen. Esan zigunez, haiek "azken katebegia" dira, "medikuek erradiografia egitea agintzen digute eta gero haiek ikusi behar dituzte. Sendagileak dira lehenengo filtroa. Beraiek erradiografia ikusiko dute eta horren arabera gaixoa Iruñera bidaliko dute, edo Altsasun artatuko dute".

Beorlegik azaldu zigunez, ez dute erradiografia fisikorik egingen, formatu digitalean baizik. "Tele-erradiografia da". Irudi digital horiek Nafarroako Osasun Zerbitzuko sarean sartzen dituzte eta edozein sendagilek edozein puntutan ikus ditzake erradiografia horiek.

Medikuak erradiografia ikusten duenarekin zalantzarik badu erradiologo espezialista bati hots egin beharko dio. Espezialista horiek "medikuak dira, baina diagnosi irudietan adituak dira. Eta suposatzen da denbora gutxian herriko sendagileari jakinaraziko diola erradiografiakoa fisura den, bihurritua den, haustura den, biriketako-mina den, eztarrikoa den..."

Teknikariak nabarmendu zuen osasun etxeetako medikuek egingen duten lehen filtro lana: "bestela erradiografia guztiak Erradiologia Departamentura iritsiko lirateke eta han ezingo liekete guztiei erantzun".

Osasun kontseilariarekin batera Lehen Arretako zuzendari kudeatzaile Santos Indurain Altsasura etorri zen. Osasun-etxeko zuzendaritza-taldeak egin zien harrera: M^a Mercedes Alberdi (zuzendaria), M^a Carmen Oiarbide (erizaintza-burua) eta Edurne Arangoa (harrera-buru). Udaletik Javier Ollo, alkatea, eta Javier Paz, osasun kontseilurako burua, joan ziren.

**DIAGNOSTIKOAK
AZKARRAGO
ESKURATU AHAL
IZANEN DIRA, ETA
BIDAIK SAIHESTU**



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Astelehenetik aurrera dago zerbitzua martxan.

"Jendea pozik dago. Beste kontu bat espektatibak dira"

MERTXE ALBERDI ALTSASUKO OSASUN ETXEKO BURUA
Erradiologia gelaz eta bestez aritu gara zuzendariarekin

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Burunda mendebaldeko osasun eskualdea Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia hartzen ditu. Altsasun dago osasun etxea eta beste bi herrietan kontsultategiak daude. Mediku, erizain eta administratiboekin, guztira 20 bat langilek lan egiten dute. Osasun etxean erradiologia gela egin dute, Sakana guztirako. Han zeuden aldagelak eraiki berri duten goiko solairura pasa dituzte. Han izanen dira eskolarizainaren eta albaitariaren gelak ere. Beste gela huts bat dago, oraindik erabilerarik ez duena.

Erradiologia gela jarrita, hemendik aurrera erabiltzera?

Jarri berri dute, bai, eta astelehenaz geroztik erabilgarri dago.

Erradiologo bat beharko da?

Ez, ez da beharrezkoa erradiologo bat hemen egotea. Haiek euren txostenak ordenagailuaren bidez eginen dituzte. Hemen erradiologian teknikari bat dago.

Hark egingen ditu erradiografiak eta gero zer bide egingen dute?

Ordenagailuz bidaltzen dizkigute. Guk kontsultan jasoko ditugu, orain arte bezala. Bestela, erradiologoari bidaltzen diogu, txostena egin eta bidaliko digu.

Alde bakarra da orain erradiografiak egitera ez dela Iruñera joan beharrik, ezta?

Hori da. Jendearendako abantaila da. Jendea pozik dago, erosoagoa da. Beste gauza bat da haien espektatibak. Asteartean erradiografia egin eta egunean bertan kontsultara etorri ziren

emaitzen bila. Berehala espero dituzte emaitzak eta erradiologoaren txostena jaso behar dugu lehenik.

Ekografoa ere jarri zuen.

Bai duela bi urte edo. Hor dago. Ez dugu asko erabiltzen, egia esan. Oso zaila da. Eta ez daukagu denborarik.

Ekografoa, erradiografiak egiteko gela, istripu tokietara irteerak, etxeko ospitalizazioa, kolon minbizia, gaixo kronikoak, betiko kontsultak... langile premiarik dago?

Betikoa. Lan egiteko gero eta jende gutxiago gaude. Esaterako, medikurik ez daukagu. Martxotik pediatria falta da eta irailaren 15etik mediku bat. Aldian behin ordezkapenak egitera etortzen da. Medikuek behar ditugu. Langile aldetik oso gaizki ibiltzen gara. Gero eta kausa gehiago behar ditugu. Ez dakigu oso ongi nola moldatu behar ditugun gauzak.

Oporraldian eta zuetakoren bat gaixotzen denean?

Ez daukagu jenderik. Ez dugu medikurik eta oporretan eta ordezkapenak egiteko oso-oso gaizki gabilta. Ez dagoenarenak egiten ditugu. Kontseilariak badu gure egoeraren berri.

Lan karga arintzeko zer?

Plantilla handitu beharko litzateke eta ordezkapenak egitea bermatu. Baina ez dago jenderik. Ez da soilik Altsasuko arazoa. Iruñean errazagoa dute, nahiz eta plaza batzuk hutsik dauden. Ez dago behar den mediku kopururik. Ez dago kontratatzeko jenderik.

Gizarte-lana osasun arloko lanbide

Tesi hori defendatzen du Fran Idareta Goldarazena bere azken liburuan. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologiako eta Gizarte Laneko irakasle eta ikertzailearen ustez faktore sozialak berebiziko garrantzia du buru-osasunean

IRURTZUN

Berriki Fran Idareta Goldarazena *Trabajo social psiquiátrico. Reivindicación ética de la dimensión social en salud mental* (2018, Nau Llibres) liburua argitaratu du. Ikertzaileak aurreratzen du gizarte-lana osasunaren arloko lanbidez hartu beharko litzatekeela. Liburuan, gizarte-lanak psikiatriaren arloan dauzkan alderdi historikoak, etikoak eta legezkoak bildu ditu. "Buru-osasuneko zentroetako pazienteak tratatzeko, alderdi biologikoez orain arte izandako pisu bera izan beharko lukete alderdi psikologikoez eta sozialek", nabarmendu du Idaretak. Bere ustez, psikiatriak "lotura estua du gaixotasun mentala azaltzen den ingurune sozial eta kulturalarekin".

Ikertzaileak dioenez, "zalanztzarik gabe, testuinguru sozialak, ekonomikoak, politikoak, laneakoak eta familiakoak eragin erabakigarria dute jendearen



Fran Idareta Goldarazena. NUP

bizitza-ibilbidean. Horregatik, alderdi soziala, teorian ez ezik, praktikan ere hartu beharko genuke kontuan giza subjektua ikertzen denean, edozein dela ere ikerketaren ikuspegia eta arlo profesionala".

Idaretaren iritziz, buru-osasunaren arloan, "salbuespenak salbuespen, alderdi biologikoa nagusitzen da, eta bazterrean uzten dira alderdi psikologikoa eta, batik bat, alderdi soziala; zenbaitetan, erabat bazterteraino". "Esku-hartze sozioterapeutikoari egiaz duen balioa ematen ez badiogu, arduragabekeria handia ekar lezake: prozesu psikoterapeutikoa galbideratu bakarrik ez, praxi okerra ere bultzatzen da diziplina antzeko taldekideen artean; talde horiek medikuntzako, psikologiako, erizaintzako, terapia okupazionala eta gizarte-laneko profesionalek osatzen dituzte batez ere. Hori dela eta, gizarte-lan psikiatrikoak funtsezko zeregina du alderdi sozialak osasun mentalaren arloan duen garrantzia defendatzeko. Profesionalak ados jartzeko etikaren autoritatea baliatzea proposatzen du, alderdi sozialaren lekua aurreratuz. +www.guaixe.eus

Diru-laguntzak kontsultategiei

Nafarroan barnako osasun kontsultategien eta kontsultategi lagungarrien funtzionamendua egokia izateko udalek eta kontzejuek badute ardura. Eta funtzionamendu gastuak ere. Osasunbideak gastu horietarako diru-laguntzak banatzen ditu. Aurten 760.212,15 euro dira, eta haietatik 39.576,84 ibarreko udalek eta kontzejuek jasoko dute.

Osasun eskualdea	Kontsultategia	Azalera	Diru-laguntza
Irurtzun	Etxarren	42	1.533,42
Irurtzun	Hiriberri Arakil	44	1.606,44
Irurtzun	Ihabar	10	365,10
Irurtzun	Irañeta	36	1.314,36
Irurtzun	Uharte Arakil	162	5.914,62
Irurtzun	Arruazu	45	1.642,95
Etxarri Aranatz	Lakuntza	83	3.030,33
Etxarri Aranatz	Arbizu	79	2.884,29
Etxarri Aranatz	Unanu	42	1.533,42
Etxarri Aranatz	Dorrao	48	1.752,48
Etxarri Aranatz	Lizarraga	52	1.898,52
Etxarri Aranatz	Bakaiku	69	2.519,19
Etxarri Aranatz	Iturmendi	78	2.847,78
Etxarri Aranatz	Urdiain	58	2.117,58
Altsasu	Olatzagutia	179	6.535,29
Altsasu	Ziordia	57	2.081,07
Guztira			39.576,84



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Buruko osasunaren etiketajea

Aurreko larunbatean, hilak 13, lagun argentinar batek zorion agurra bidali zidan WhatsApp-etik. Psikologoaren eguna bazenik ere. Nahastuta edo adarra joka zebilela pentsatu nuen, Buruko Osasunaren Nazioarteko Eguna asteazkenean, urriaren 10ean izan baitzen. Baina, bardear-argentinar hori ez zebilen oker, Argentinan asko baitira buruko osasunaren eta psikologiaren inguruko egun seinatuak. Esaterako, psikologoaren elkargoko lehen lehendakaria Beatriz Perosso gogoan dutenekoa edota diktadura garaian desagertutako hainbat psikologo, gizarte langile, psikiatra eta osasun mentaleko beste hainbat langile-ikasle omentzen duten egun seinatuak. Buru osasunaren aldeko aktibistatzaletzat jotzen dira horiek guztiak (orduak aktibismoaren ordeztuak kontzeptua erabiltzen bazuten ere).

Badakizue "buruko" kontuekin nolakoak diren lurralde hartan, psikologoarenera jotzea kotxea mekanikora eramatearen parekoa da haienentzat. Atera kontuak, Buenos Airesen psikologo kontsulten kontzentrazioa handia dagoen eremua "Villa Freud" bezala ezagutzen da. Gurean pentsa ezina da hori, gai horrekin ez dugu horrenbesteko abildaderik eta ezkutuan eramaten ditugu buruko "aje" eta noraezak.

Ezkutuko bide horri argia emateko gure hiztegia errebisatzen has gaitzke. Arlo hori zuzenean ezagutzen dutenek arbuia egiten dute "buruko gaixoa" izendapena, atzean duen zamagatik. Baina gizarteko joerak eta izendapen honen erabilera ikusita, psikologo-psikiatraren bidea hartzen dutenei ezertarako gauzatzat jotzen dira. Gainera, estigma buruko arazoekin lotuta agertzen da usu. Guztion lanketarako arazoia, hortxe dugu, gure mamua eta gure arbuioen sorburua.

Aldi berean, estigmak edo etiketak saihesteko bidean has gaitzke. Esaterako, inguruan ditugunei erreparatzean ikusiko dugu beren eguneroko bizitzan, egunik gehienetan, ez direla eri sentitzen. Ongi egiten dituzte bolada luzeak, baina, noizean behin gaizki jartzen dira (kanpoko hizkeran "erotuak", "burutik jota").

Azkenik, buruko osasunari buruzko elkarteek aspaldi eskatzen ari direna kontuan hartzen has gaitzke, haien aldarri kolektiboa garbia baita: baliabide gehiago buruko nahasmenduen prebentzio-rako, diagnostikorako eta arta goiztiarra eta arreta hobetzeko. Aldi berean, jendarteari etiketak saihesteko eskaera zuzena da, eta horretarako hezkuntzatik lantzea beharrezkoa delarik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEek eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrezkoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HERIOTZA-OHARRA

Josune Carrion Galartza

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Urriaren bederatzian jakin nuen, goizean goiz, utzi gintuzula betiko, gaixotasun luze eta gaizto baten ondoren. Min eta atsekabe handia hartu dut.

Bizitzak aspaldian banandu gintuen eta bakoitza bere aldetik eraman. Zoritxarrez, azken hamarkada hauetan ez dugu elkar ikusi, baina horrexek gauza on bat behintzat ere badu, alegia, horri esker orain dela berrogei urte bezalaxe gogoratzen zaitut: neskatxa

gaztea, hemezortzi-hogei urtekoa, garaieraz txikia, baina bihotz eta irribarrez handia.

Izan ere, garai hartan, orain dela gutxi gorabehera berrogei urte, Irurtzungo dantza taldean ezagutu genuen elkar, entseguetan eta emanaldietan. Dantzari arin, malgu eta zalua zinen, baina, deus baino lehen, pertsona atsegin eta goxoa; alai eta irribarretsua.

Hantxe aritzen zinen, gainerako lagunekin dantzan, gogotik, nekaezin, zintzo: Iribasko ingurutxoan, zinta-dantzan, arku-dantzan,

Eltziegoko dantzetan eta abarretan.

Oso gazte joan zara; gazteegi! Zure konpainiarik gabe utzi gaituzu. Hego haizeak, etorri, eta hegan eraman egin zaitu.

Besarkada estu bana familiakoei eta lagun guztiei! Zuri, Josune, musu handi bat, bukaerarik gabekoa, eta txistu doinu gozoak, dantzan jarrai dezazun zeure larre eta zelaietan.

Honelaxe gogoratuko zaitut beti, Josune: gazte, alai, atsegin, jator, arin, zintzo, eder, irribarretsu eta hegalari. Muuuuuuuua!

HARA ZER DIEN

Donostiako hitzordua

SAKANAKO SARE

Joan zen astean hainbat komunikabidek filtratu zuten Estrasburgoko Epaitegia azaroan emateko prestatzen ari den ebazpenaren berria. Komunikabide horien filtrazioaren intentzioa, jakina, ez zen "albiste ona" zabaltzea, baizik eta alde zuzenetik ebazpen horrek dakarrenaz ohartaraztea.

Bagenekien Estrasburgoko bideak luze joko lukeela, luzeegia; baina Estatuak haien espetze politikarekin korriarazi digun oztopolasterketa honetan hesiak gaindituz joatea beti pozgarria da. Hortaz, zuhurtziaz hartu beharrek albiste bada ere, badakigu zerbait datorrela.

Euskal preso politikoei aplikatzen zaizen graduen

politika da gainditu beharreko beste oztopo bat. Izan ere, euskal presoek graduz aldatzeko eginiko eskaerak ukatzeko Espetze Zaintzako Epaitegiak eman zuen ebazpena aztertu berri du Foro Sozial iraunkorrak.

Datuak oso adierazgarriak dira. Epaitegi horrek gradu aldaketa lortzeko euskal presoek egindako 47 eskaerari ezezkoa eman die. Bi kasutan soilik bigarren gradura igarotzea onartu da, eta 2018ko irailaren 27an 70 eskaera zeuden epaitegiaren erantzun baten zain. Euskal preso politikoen % 95 inguru oraindik ere lehen graduan (erregimen itxia) sailkaturik daude eta haietatik 27 bakartze moduluetan modu iraunkorrean dauzkate.

Euskal gizarteak, bere erakundeek eta eragile politiko eta sozialek eskatu dute preso guztiak Euskal Herriko espetzeetara hurbiltzea, adinekoak diren eta gaixorik dauden presoek askatasuna, zigorrak batzeko Europako irizpidea betetzea eta lehen graduak ezartzen duen oztopoa gainditzea.

Gizarte osoari dei egin nahi diogu, eta zuri bereziki, eskaera eta adierazpen horiek entzunarazteko bihar, urriaren 20an 17:00etan, Donostiako Antiguoko tuneletik aterako den manifestazioan parte har dezazun. Bihar denok Donostiara!

Orain Presoak!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Nafarroako Gobernuako ordezkariak Irurtzungo alkatearekin Inasan 2016an.

Inasako bulegoen zati bat berritzeko lanak emateko deia

Nasuvinsak eta udalak beheko solairua egokituko dute. Lanak aurten hasi eta udaberrirako prest izanen dira

IRURTZUN

Inasa zena industrialde bihurtzen ari den bitartean, urbanizazioaren eskubideei uko egin eta udala bulego eraikinaren jabe egin zen. Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Aintzane Iriberrri Berrostegetak martxan den Sakanako Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren barruan kokatu du eraikina: “eraldaketa digitalean sortzen den teknologia garatu, frogatu eta sinergiak sortzeko gunea izanen da. Enpresek erabiltzeko esparru bat”. Premia horri erantzun nahi diote udalak, SGak eta enpresek. Iriberrri gaineratu duenez, Nasuvinsak Nafar Lansarerekin prestakuntza emateko akordioak ditu eta hori ere “interesgarria” izanen da.

Horretarako eraikina moldatu egin behar da. Bulego eraikin guztia egokitzeko proiektua badago ere, oraingoan beheko

solairua (500 m²) egokitzeko lanak emanen dituzte. Proiektu bera bada ere, lanak erdibana egingen dituzte udalak eta Nasuvinsak, baina bakoitzak bere deialdia eginez. Nasuvinsa enpresa publikoak prestakuntza eta erabilera anitzeko gelak egiteko deialdia egin du gaur. Lanek 135.228,76 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute. Egitekoak hiru hilabetetan despeditu beharko dira. Enpresek euren eskaintzak azaroaren 8ko eguerdira arte aurkeztu ditzakete. Eskaintza onuragarriena iri emanen zaio lana.

Aitor Larraza alkateak jakinarazi digunez, udalaren deialdia heldu den aste hasieran egingen da publiko. 134.605 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua izanen du Ikerketa eta Garapenera bideratuko gelak. Nasuvinsaren deialdiko antzeko eskakizunak izanen ditu.

Zatikatzeko gunea ez da aurten egingen

Lehen sektorearendako azpiegitura horretarako diru-laguntza atzeratu egin da eta espero baino diru gutxiago jaso da lanerako. Abeltzainei haragia han zatikatu edo manipulatu, osasun zigorua lortu eta zuzenean saltzeko aukera eskaini nahi zaie

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko hiltegiaren osagarri eta aldi berean independente, eraldaketa gunea bat egitea zen Sakanako Plan Estrategikoko aurtengo lehentasunetako bat. Eraldaketa gunearen lehen fasea, zatikatze gela kolektiboa aurten egiteko ziren. Proiektua Etxarri Aranazko Udalak, Sakanako Garapen Agentziak (SGA), Belardi ekoizle elkarteak eta Sakanako hiltegia kooperatibak landu dute.

Garapen agentzietatik jakinarazi dutenez, “halako proiektuetan gertatu ohi denez, prozesuan zailtasunak agertu dira, eta horietako asko eta asko gainditu badira ere, obra modu egokian egiteko gutxieneko baldintzak ez dira lortu”. Azaldu dutenez, alde batetik, Etxarri Aranazko Udalak Nafarroako Gobernuari eskatutako diru-laguntzaren ebazpenak atzerapen handia izan du, “ondorioz obra egiteko duen epea zeharo murriztu da, aurten gauzatzea bideragarria ez izateraino”. Bestetik, “emandako diru-laguntza eskatutakoa baino gutxiago izan da, beraz, obraren kostua ez litzateke %100ean diruz lagunduko. Hori zen obra egiteko Etxarri Aranazko Udalaren nahitaezko baldintza”.



Etxarri Aranazko hiltegiaren eraikina. ARTXIBOA

Aurrera

Zatikatzeko gela urte akaberarako egina ez badago ere, SGAtik argitu dutenez, “hainbat eragilerekin batera egin beharreko lanak aurrera jarraitzen du eta ahalik eta epe motzenera proiektua gauzatzeko apustua argia da”. Agentzian elikadura teknikari den Nerea Viana Zugadik azaldu duenez, “halako proiektu batek Sakanako garapen iraunkorrean, bai elikadura sistemarengan eta ekoizlearen errentagarritasunean duen eragina estrategikotzat jotzen da

eta, beraz, proiektua epe motzera bideratzeko lanak aurrera jarraituko du”.

Bestalde, Vianak jakinarazi du agentziak zatikatze gela kolektiboari buruzko bideragarritasun ikerketa egingen duela. Helburua, “zerbitzua erabiltzeko interesa luketen abeltzain eta bestelako herritarren demanda aurreikustea”. Horregatik, gunean interesa dutenek SGArekin harremanetan jartzera gonbidatu dituzte (info@sakanagaratzen.com e-posta edo 948 117 344 telefonoa).


Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Nafarroa Oinez ospakizunaren berri
- Sakanari zerbitzua emanen dion erradiologia gela
- Irantzu Garcia Agirrerekin mikologiaz

Ostiralero 9:30ean

SAIOA Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE



Karparen azpian babestu izan ziren inguratutakoak.

Txistorraz blai gelditu ziren produktuari eskainitako egunean

Txistor egunaren 10. edizioan euria gogoz egin zuen, baina ezin izan zuen ospakizunarekin

ARBIZU

Txistor Eguneko 10. edizioeko protagonista txistorra izan zen, nahiz eta euri-zaparradak protagonismoa kentzen ahalegindu ziren. Goizetik kale Nagusian zeuden postuek jende mugimendua erakarri zuten. Han edo hemen, jendeak saltzaileen "amuari" hozka egin zion. Nahiz eta eguraldi iragarpenagatik batzuk ez etorri eta beste batzuk atertzen ez zuelako lehenago jaso. Txistor, tripota, txantxigor, ukendu eta bestelakoak garai batean nola egiten ziren erakusten zuten guneek ere hainbat interesa piztu zuten.

Eguerdi aldera hasi zen euria eta plazako aterpera bildu zen jendea. Han ari ziren pintxo lehiaketako epaimahaia bere lanean. Han aritu zen Arbizuko abesbatza. Eta han, aterpean txistorra pintxoak eta ardoa dastatzeko aukera izan zen goi-

zean. Eguraldiak pintxoak jatera gonbidatu zuen. Arbizu, Flores eta Laketen 100 kilo txistor saldu ziren pintxotan.

Sariak ere han eman ziren. Txistor pintxo lehiaketa Lesakako Iban Maiarendako izan zen. Argiñano eskolan sukaldaritza ikasten ari da. Lehiaketan irabazle suertatu zen pintxoak honela osatu zuen: ogi-apur oinarria, txistor pixka batekin eta sagarra, bakailao brandada, arto-irinean arrautzetzatutako gorringoa eta mango chutney saltsaren 3 puntu. Aurreneko aldia zen lehiaketara aurkeztu zena eta harendako "sorpresa" izan zen irabaztea. Maiak zaletasuna lanera bideratu nahi duela aitortu zuen, noizbait zerbait irekitzeko asmoa. Alhambra jatetxeko Javier Diazek adierazi zuenez, urtetik urtera maila handiagoa dago lehiaketan.

"9 regalos del Alzheimer" liburu aurkezpena klinikan

Josefina Arregi klinika psikiogeriatrikoak liburu baten aurkezpena hartuko du gaur, 19:00etan. Matilde Mendieta Goikoetxea idazleak *9 regalos del Alzheimer* liburua aurkeztuko du. Mendieta dioenez, "nire amaren Alzheimerrak erakutsi dit atsegingarriagoa dela bizitzari baldintzarik gabe baietz esatea, emozioei galga jarri eta etengabe kezaka aritzea baino. Gertatzen zaigun guztia bizirik gaudelako da, eta arrazoi bat du. Gure sentimenduak ukatu eta mina blokeatzen badugu, onartzeak baino gehiago gastatuko digu blokeoak". Liburuak medikuntza zabalkunde eta autolaguntza uztartzen ditu.

Arakil eta bere historia ezagutzeko irteera

Arakilgo Udaleko kultura zerbitzuak XI. historiaren beteriko mendi martxa antolatu du hilaren 27rako. Ibarreko txokoak eta haien historia ezagutzeko proposamena da. Aurtengo eskaintza Satrustegi du hasiera eta bukaera. Ibiltariak Jokin Lanz historialariak lagunduta egingen dute bidea. Barga aldean ibiliko dira eta besteak beste Beramako despopulatu ezagutzeko aukera izanen da. Akaberran bazkaria izanen da. Horretan izena emateko udaletxera hots egin behar da: 948 500 101 edo 634 584 223. Bestela, arakil-kultura@gmail.com e-postara idatzi. Asteazkenera arte dago epea zabalik.

Euskaraldian izena ematen segitzen dute sakandarrek

Euskararen erabilera bultzatzeko ariketa pertsonala eta aldi berean kolektiboa egingen da azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskaraldia. Hartan izena emateko www.euskaraldia.eus web orrian sartu daiteke. Lakuntzan, gainera, liburutegian izena emateko aukera dago. Altsasun, bestalde, batzar irekia dago gaur, 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.



Hitzaldia 18:30ean izanen da. UTZITAKOIA

Ornitologia asteburua, Sakanako hegaztiak ezagutzeko aukera

Ibarreko hegaztiak ezagutzeko bigarren eta azken saioa egingen da asteburuan. Hegazti eta miruen migrazioari buruzko hitzaldia izanen da gaur, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean. Hegazti horiek ezagutzeko irteera gidatua egingen da bihar, 09:30etik 13:00etara (migratzaileak) eta 16:30etik 19:00etara (miruak) Izena emateko: info@mirua.com edo 608 560 369.

Aralarko aingerua Arantzazuko santutegian bihar

Aralarko Deun Mikel Goiaingearuaren kofradiak jakinarazi duenez, Aralarko aingeruaren irudi ibiltariak Arantzazuko santutegian egingen du geldialdia bihar.

Aralartik Aizkorri aldera bisita egingen du Aralarko aingeruaren irudiak eta, kofradiako kideak lagun dituela, 10:45ean Arantzazuko elizan sartuko da. 11:00etako mezan Aralarko aingerua elizako aldarean izanen da. Eta elizkizunen ondoren, ohienez, fededunek irudia gurtzeko aukera izanen dute. Santutegi barrukoak despeditu ondoren, haren kanpoko aldean Aralarko aingeruaren irudiak landak bedeinkatuko ditu.

Milakolore Egunerako atzera kontua martxan dago

Behar bereziak dituzten Sakanako pertsonen elkarteak, Milakolorek, festa eguna antolatu du hilaren 27rako. Ospakizunean lortutako dirua ibilgailu egokitu bat erosteko da. Egun osoko egitaraua prestatu dute. Tartean herri bazkaria ere bada. Bazkarirako txartelak honako tokietan erosi daitezke (haurrendako 6 euro, helduendako 12): Irurtzungo Tahona okindegian, Arruazuko ostatuan, Lakuntzako Ogi Berrin, Etxarri Aranazko Xapatero tabernan, Urdaingo Kaluxa tabernan, Altsasuko Kaixo eta Akelarre tabernetan, Olatzagutiko Clinker tabernan, Ziordiko Urbasa tabernan eta Aguraingo El Gordo tabernan.

Botanikatik mikologiatik baino gehiago zuen erakusketak

Eguraldiak lagundu ez badu ere ziza sorta ederra ikusteko aukera izan zen, hainbat landarerekin batera

ETXARRI ARANATZ

Ferien ondoren hitzordua dago Etxarri Aranatzen herriko landareekin eta zizekin. Mikologia eta botanika zaleendako hitzordua Euskal Herriari frontoian izan zen, eguraldiak lagundu ez

zuelako. Hiru mahai luzetan herriko dermioan bildutako zizak eta landareak ikusgai izan ziren. Landare eta baratzeko produktuak izan ziren ikusgai jarri zituzten gehienak. Tartean 101, 88, 53 eta 22 kilotako kuiak.

Arzabal elkarteak eta mikologia eta landare taldeak antolatutako erakusketan ziza gutxi izan ziren, eguraldi lehorrak ez duelako haiek ateratzea erraztu. Jatekoak bai izan zirela, zizekin egindako pintxoak hain zuzen ere. Iganeko hitzordua mikologia etxarriarren artean zabaldu zuten Bixente Garziandia, Barze, eta Jose Luis Eseberriren omenezko erakusketa da. Mikologiarekin hurrengo hitzordua: 28an Altsasun (ikus azken orria) eta azaroaren 4an Irañetan.



Eguraldi txarra zela eta, erakusketa frontoian izan zen.



Isidoro Meleroko lanek ferien ondoren hasi eta 6 hilabete iraunen dute.

Herri-lanek autobus geltokiaren aldaketa ekarriko dute

Isidoro Melero eta Ermita kaleko lanengatik autobus geltokia Idertzegain kalera aldatuko da ferien ondoren

ALTSASU

Altsasuko Udalak sareak eta zoladura berrituko ditu Isidoro Melero eta Ermita kalean. Aldi berean, espaloiak eta aparkalekuak egokituko dituzte. Lanak Construcciones Mariezcurrena SAK eginen ditu 633.833,62 euroren truke (BEZ kanpo). Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Planean (TIP)jasoa dago inbertsio hori.

Autobus geltokia Isidoro Melero kalean dagoenez, garraio publikoko zerbitzua ezin izanen da hara joan. Horren ordez, Idertzegain kalean geldituko dute, Aita Barandiaran adinduen egoitzaren ondoan. Han, gaur egun, Irun eta Madril arteko lotura egiten duten autobusak gelditzen dira. Horregatik, eta Isidoro Meleroko lanak urte erdiz luzatuko direlako, Altsasuko Udalak markesina bat jartzea erabaki zuen asteartean, bidaiariak ibilgailuen zain daudela, aterpea izan dezaten. 3 metro luze izanen ditu.

Bada beste autobus geltoki bat Altsasun, suhiltzaileen egoitzaren parean. Han Iruñea eta Bilbo arteko lotura egiten duten autobusak gelditzen dira. Aurreko arrazoi beragatik Altsasuko Udalak erabaki du Iruñeko etorbidean ere markesina jartzea, 2,5 metro luze izanen duena. Bi aterpe horiek erosteko 12.000 euro bideratuko ditu udalak.

Lan gehiago

Bilkura berean Altsasuko Udalak Amaia eta Bakea kaleen

sareak eta zoladurak berritzeko lanen proiektua onartu zuen. Heldu den urtean egingen den lan horren aurrekontua 1.031.000,61 eurokoa da eta horietatik 600.000 euro inguru TIP-aren bidez pagatuko dira.

Bakea kalean, zehazki, Zumalakarregi plazako zatia da berrituko dena, Akelarre taberna pareko kale zatia barne. Horregatik, udalak plazako zorua berrituko du. Lan hori inolako diru-laguntzarik gabe egingen du. Hirigintza Batzordean dagoeneko zehaztu dituzte zein behar ase behar diren lan horrekin. Udal arkitektoak kostua zehaztu eta udalak aurrekontu aldaketa egin beharko du lan horiek finantzatzeko.

Bestalde, Altsasuko Udalak aurrekontu aldaketa onartu zuen. Haren bidez argiteria publikoa berritzeko aurreneko fasea finantzatzeko da. TIPen jasoa dagoen lan horretan Beikolar, Ibarrea, Ameztia, Intxostia, Altsasu Institutua, Zubeztia, Beheko Benta, Ondarria eta Gurutzeko Bideko aginte zentroak daude. Lanek 316.635,62 euro dituzte. Beste 73.000 euro Ondarria industrialdeko eta Dantzalekurako bideko kableak aldatzeko bideratu ditu aurten udalak.

Altsasuko Udalak egungo argiak LED teknologiagatik ordezkatuko ditu, energia eraginkortasuna hobetu eta energia eta dirua aurrezteko. Lan horiek lau hilabetetan egin beharko dira.

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

 **IZEN-EMATEA**
www.euskaraldia.eus

 euskaltzaleen topagunea

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



Arbizuko IAT-ko langileak lantoki parean egin zuten protesta. 2008an zabaldu zen lantegia.

IAT egun batez geldi lan baldintzak hobetzeko

Ibilgailuen Azterketa Teknikoko langileek asteartean greba egin zuten lan baldintzak hobetu eta plantilla handitzeko eskatzeko. Hilaren 31n zuzendaritzarekin bilera dute eta emaitzaren arabera ez dute beste mobilizaziorik baztertzen

ARBIZU

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egitera Arbizura joan zirenek asteartean ezer egin gabe etxera bueltan joan behar izan zuten; izan ere, TUV Rheiland enpresako langileek greba eguna zuten eta lantegia itxita egon zen. Enpresa bereko Iruñeko lantegiak ere itxi zuten. Protesta horrekin langileek enpresari eta kontzesioa ematearen arduraren Nafarroako Gobernua jakinarazi nahi zieten behar baino langile gutxiago daudela lanean eta haien lan baldintzak ez direla egokiak.

ELA sindikatutik jakinarazi dutenez, garagarrean hasi ziren enpresarekin lan baldintzez hitzetan baina ez dute planteamendua ukitzen. ELAtik azaldu digutenez, Arbizuko lantokian 11 langile daude, astegunetan 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:30era lan egiten dutenak. “Bazkaltzetik bueltan auto ilarak izaten dituzte zain

eta horrek estresa sortzen du. Lanaldia 17:00etan bukatuta ere, auto ilara despeditu arte lan egin behar dute”. ELAtik gaztigitatu dutenez, erabiltzaile batzuek 3 ordu zain egon behar izan dute.

Eskaerak

Sindikatuak argitu dutenez, Arbizurako 3 mekaniko eta administrari bat gehiago eskatzen dute. Horrela, lan karga arindu, zerbitzua zabaldu eta hobe emanen luketela argudiatzen dute ELAtik. Lan karga handiak langileengan ondorio fisiko eta mentalak dituela gaineratu dute. Grebaren deitzaileei bidegabea iruditzen zaie enpresa berarendako lan egiten duten langileek baldintza desberdinak izatea. “Lankide izanda eta kategorია bera izanda”, enpresa beraren Gipuzkoako IAT-en baldintzak berdintzea eskatu dute ELAtik: “urtean 1.550 lan ordu egiten dituzte, 35 orduko lan astea dute. Soldata beragatik urtean 250

ordu gehiago sartzen dituzte Arbizun, 40 ordu astean”.

Langile berrien baldintzak “larriak” direla nabarmendu dute ELAkoek: “goi zikloa edo ingenieritza gradua eskatzen zaie eta urtean 1.800 orduko lanaldiak egiteagatik 926 euroko soldata gordina eskaintzen die (Estatuko Ingeniaritzaren hitzarmenean oinarrituta). Bal-

Arbizuko IAT

- **11 langile:** 2 ingeniari, 7 mekaniko (2 behin-behinean) eta 2 administrari.
- **110 bat ibilgailu:** horiek dira, gutxi gorabehera egunero ikuskatzen dituztenak.
- **Gipuzkoatik** Irungo eta Urrietako IATko greben ondoren etortzen dira: merkeago eta txandarik ez

dintza hobeak eskaintzen dituzten beste IAT-en eskaintzak onartu edo haietan aurkezten dituzte curriculumak. Enpresak dio jendea ez dela aurkezten. Baldintza horiekin, nola?”

Aldi berean, lanaldi jarraitua indarrean jartzea nahi lukete. ELAtik esaten dutenez, “horrek zerbitzua hobetzea ekarriko luke, ordutegi murriztuz horrekin jende asko gelditzen baita bazkal garaiko atsedeenagatik atean zain”. Ordutegi jarraituak lanaldi desberdinak izateko aukera emanen liekeela gaineratu dute.

Sistema aldaketa

Sindikatuak azaldu digutenez, isuri kutsakorren eta elektronikaren sistemen kontrola egiteko lan sistemaren aldaketak IAT “lanez lepo” egotea ekarri du. Azterketa pasatzen zuen ibilgailua makinatik pasatzean, emandako balioa paperean boligrafoz idazten zuten maiatzaren 20ra arte. Hurrengo egunean informatizatu zen prozesua. Makinak wifi bidez langileen tabletera pasatzen ditu datuak. Orain gutxira arte langileek datu horiek “mugitzeko” aukera izan dute, baina erabateko digitalizazioa iritsi da eta hori ere ezin dute egin. ELAtik argitu dutenez, “probak emaitza ona eta zehatza eman behar du. Langileek ezin dute euren balorazioa gehitu. Makinak markatzen duena egokia ez bada, ongi egon arte zain egon behar dute edo IAT pasatu gabe atera. Langileek badakite, esaterako, ibilgailua beroago egonda-edo pasako lukeela”.

Enpresa digitalizazio horretan aitzindaria izan dela azaldu dute sindikatutik, “baina Noainen edo Bergaran sistema aldaketak ekarriko zituen arazoei aurre hartu zieten. Arbizun ez du halakorik egin eta lepo daude”.

ELAk gogorarazi du IAT zerbitzua Nafarroako Gobernuaren emakida publikoa dela eta beste 10 urterako berri duela gaineratu du. Horregatik, sindikatuak foru administrazioa lan-gatazkaren konponketan parte hartzera premiatu du, “beti ere, lan baldintza duinak eta kalitatezko zerbitzua bermatzeko”. ELAtik azaldu dutenez, TUV Rheiland enpresak azken 4 urteotan guztira 2,4 milioi euroko irabaziak izan ditu. Hilaren 31n bilera dute enpresarekin, baina ez dute baztertzen mobilizazio berriak egitea.

Albi gaztandegia Idiazabalen saritua izan da

Idiazabalgo Baserritarren Eguna ospatu zen igandean. Han 35. Euskal Herriko Artzain Gazta lehiaketa jokatu zen. 40 gaztagilaren gaztak dastatu zituzten epaimahaikoez eta herritarrek. Elgoibarko Mausitxa gaztandegiarendako izan zen txapela. Publikoaren saria edo herri-dastatzekoa, berriz, Arruazuko Albi gaztandegiak eskuratu zuen.

Etxarriko gaztetxokoa larunbatean zabalduko da

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren gaztetxoak neguko asteburuetan egoteko eta ongi pasatzeko tokia da gaztetxokoa. Laugarren denboraldia bihar mustuko du Etxarriko gaztetxokoa. Maiatzaren 26ra arte egonen da zabalik: larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandean 16:30etatik 20:30era. Zerbitzua erabiltzeko izena eman behar da hilaren 31 baino lehen. 30 euroko kuota (40 euro errol-datuta ez daudenak) pagatu behar da udalaren Euskadiko Kutzaren kontuan, gaian gaztetxokoa eta izen abizenak jarri behar da. Ziurtagiria eta matrikula orria udaletxean aurkeztu beharko dira.

Motorzale etxarriarra istripuan hil zen larunbatean

31 urteko motor gidaria istripuan izan eta hil egin zen. Ezbeharrak Bargetokako bidegurutzean izan zen, 16:00ak aldera. Gidariak motorraren kontrola galdu, erori bidetik atera eta ezponda jo zuen. Los Arcosko osasun taldeak gazteak istripuaren ondorioz gorputzaren hainbat tokitan kolpeak zituela ikusi zuen. Medikua zuen ambulanzian Nafarroako ospitalera gunera eraman zuten baina hil zen.

15 egunetan trafikoko istripuan hil den bigarren sakandarra da etxarriarra. Olatzagutiko motorzale bat hil zen istripuan irailaren 28an. 2017an 3 sakandar hil ziren errepedean, 2 auto istripuan eta bestea motorrarekin.

Hiru kaletako lanak heldu den astean hasiko dira

Larrañeta, Kañada eta Mendigaina kaleetako sareak eta zoladura berrituko dira

LAKUNTZA

Lakuntzako Larrañeta (eskola-aren iparraldean dagoena eta kultur etxetik Lakuntzako per-tza elkartera doana), Kañada eta Mendigain (herriaren he-goaldean, inguraketa errepidea-ren ondoan) kaleetan egingen dira berrikuntza lanak. Hain zuzen ere, lurpeko sare guztiak berritu eta airetik doazen kableak lurperatu, eta hori egin ondoren zoladura berria jarriko da. Lanak heldu den astean hasi eta bost hilabeteren buruan despedituko dira, martxorako-edo.

Lan horiek Goizuetako Her-manos Apezetxea enpresak eginen ditu eta haien truke 517.318,31 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Ur azpiegiturak berritu behar direnez, lanen zati horren kostua Sakanako Mankomunitateak hartuko du bere gain. Horretarako 94.318,31 euro (BEZ barne) bideratuko ditu. Gainontzeko 423.314,95 euroak (BEZ barne) Lakuntzako Udalak ordainduko ditu. Baina horretarako Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planeko diru-laguntza jasoko du. Udalak bere zatia diruzaintzako gerakinean duenarekin eta erabilera askeko funtsetik jasotakoarekin ordainduko du eta ez da zorpetuko.



Epe luzera euskaraz funtzionatzeko helburua dute Lanbide Heziketan. ARTXIBOA

Lanbide Heziketan euskarari tokia egiten

Sakana Lanbide Heziketako institutuaren plan estrategikoan jasotzen denez, epe luzera, euskaraz funtzionatu nahi du. Horretarako, ateratzen diren funtzionario plazak euskaraz dira eta, ahal denetan, ikasleekin euskarazko harremana izan nahi da

SAKANA

Euskarak nota txarra du Lanbide Heziketan. Euskararen lurralde guztian gabezia orokor bat da. Ikasketa eskaintza zabalitzen ari bada ere, oraindik ere egiteko asko dago lanbide irakaskuntza euskalduntzeko. Eta bide horretan dago Sakana Lanbide Heziketa institutua ere. Eremu euskaldunean egonda. Bere epe luzerako helburu estrategikoen artean dago euskaraz lan egitea, baina ez dakite noiz lortuko duten helburua.

Bide horretan urratsak ematen hasi dira. Sakana institutuan ateratzen diren funtzionario plazak euskara eskakizuna dute. Eta gaztelania eskakizuna duen

funtzionarioen bat ikastetxetik joaten bada, gaztelaniazko plaza desagertu eta euskarazkoa sortzen da. Nahiz eta klaseak gaztelaniaz izan, euskaraz dakiten irakasleek euskaraz hitzen egiten diete dakiten ikasleei. Ikasleriaren erdiak daki euskara.

Egokitzea

Beste ikastetxeekin, Hezkuntza Departamentuarekin, udalarekin eta jende askorekin hitz egin ondoren ondu zuen Sakana Lanbide Heziketa institutuak bere plan estrategikoa. Hor jasotzen da euskarari buruzko erabakia. Institutuaren gizarte kontseiluan asmo horien guztien berri eman zuen zuzendaritzak eta onartu

egin zen. Nafarroako Gizarte Kontseiluan dauden sindikatuak, UGT eta CCOO, ere bilera hartan zeuden eta dokumentua onartu zuten.

Eta azken sindikatu horrek orain Hezkuntza Departamentuak egindako kontratazioa salatu du: gaztelaniazko klaseak emateko euskarazko espezialitate zerrendako pertsona bat kontratatatu dutela. Sindikatua kexu da: "plazako baldintzak aldatu dira, klaseak emateko beharrezkoa ez den profil bat (euskarazko C1) eskatuz". CCOOk kritikatu du ere erabakiak kontratatutako langile batengan izan duela eragina, "kolektibo ahulenean, eta ez ikastetxeko behin

betiko irakasle funtzionarioen artean".

CCOOfik adierazi dutenez, euskararen erabilera sustatu eta normalizazioaren alde agertu dira. Eta hori lortzeko "hain bidegabeak" ez diren neurriak daudela azaldu du: gaztelaniazko irakasleei euskara irakastea. "Sakana moduko testuinguru elebidun batean euskararen gutxieneko ezagutzak izatea ona dela uste dugu". CCOOfik proposatu duten beste neurria da "nahikoa ikasle badaude, euskarazko zikloak martxan jartzea".

Plan estrategikoa onartu ondoren kexa aurkezteak harritu ditu institutuan. Bestetik, ikastetxetik argitu digutenez, departamentuak ez du sekula euskarazko eskaintzarik egin eta euskarazko adarra sortzeko nahikoa ikasle ez daude.

160 bat ikasle institutuan

Sakana LH institutuan honako ikasketak egin daitezke: Merkataritza Zerbitzuetako Oinarrizko Lanbide Heziketa; erdi mailako soldadura eta galdaragintza, mantentze-lan elektromekanikoa eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko zikloak; goi mailako fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa eta industria-mekatronika zikloak eta, azkenik, erregimen bereziko mendi ertaineko gida eta eskaladako ikasketak.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675

GUAIXE



Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Autoen seguruak



JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena
PREZIO ONENEAN



Domekan egindako ekitaldiaren une bat.

Bigarren epaimahaiian GC-ak omendutakoak ere

Altsasuko auziko abokatueta batzuek epaimahaiaren osaketaren kontrako errefusatzea aurkeztu dute. Altsasuko Gurasoek hilabete barru antolatuko duten hausnarketa gunean parte hartzera deitu dute

ALTSASU

Altsasuko auzia Espainiako Auzitegi Nazionalan epaitu zuten udaberrian. Orduan abokatuek salatu zuten epaimahai buru Concepcion Espejel epaileak Guardia Civilaren koronel baten emaztea dela eta erakundearen merituzko domina jaso zuela. Magistratua auzitik baztertzeko abokatuen eskaerak alferrikoak izan ziren. Altsasuko zortzi auzipetuek 2 eta 12 urte arteko espetxe zigorrak jaso zituzten. Abokatuek epaiari helegitea aurkeztu zioten eta Espainiako Auzitegi Nazionalako apelazio salak aztertu du sententzia.

Helegitearen aurreneko puntuan abokatuek prozedura baliogabetzea eskatu zuten Guardia Civilak Espejel omendu zuelako. Eta areto hori bera izan da auzipetuen abokatuak jakinarazi ziena hilaren 1ean hiru epaileetatik bi Guardia Civilaren ohorezko dominak jaso zituztela: Eloy Velasco eta Jose Ramon Navarro. Aretoko kideen iritziz

hori ez da nahikoa arrazoi auzitik baztertzeko. Abokatuek, ordea, helegitea aurkeztu eta epaimahai aldatzeko eskatu dute: "Guardia Civilaren kondekorazioa jasotzea epaiketatik baztertzeko nahikoa ez dela esatean, aretoak berak aitortu du bere neutraltasun falta, helegitearen argudioak aztertu aurretik haietako baten gaineko iritzia eman baitu".

Abokatuek gaineratu dutenez, Velasco errefusatzea nahi dute, auziaren inguruko zenbait adierazpen egin dituelako aurretik: "ETAren disidentzia gaztearekin adi" egon behar zela esan zuen 2017ko azaroan eta Espainiako Auzitegi Nazionalak "terrorismoaz" Nafarroako Lurralde Auzitegiak baino gehiago dakielako esan zuen martxoan. Defentsako abokatuen iritziz, Velascok aurretik kasuari buruzko iritziz zehatza du eta haren "neutraltasunaren" inguruko zalantza dute.

700 egun

Frontisa pantaila bihurtuta, bigarren koadrotik errebotera arte kantxa jendez beteta. Bideo bidez duela bi urte Gartzia Ximenez kaleko taberna batean hasi eta kalean segitu zuten gertakariak gogora ekarri zituzten Altsasu Gurasoek eta Altsasukoak aske herri asanbladak. Zerbitzuz kanpo zeuden bi guardia civilen eta haien bikoteen eta herritarren arteko liskarri hurrengo egunetan hedabideetan emandako tratamenduari erreparatu zioten bereziki igandean. "Goizeko lauretan herriko taberna batean izandako gertakari batek hedabideen jomugan jarri gintuen, era guztiz desitxuratu batean gure he-

"ESKUBIDEEN ETA ASKATASUNAREN ALDE INDARRAK BATZEKO" HITZORDUA AZAROAREN 14EAN

ria deskribatuz; helburu anker eta ilunak zituzten".

Hilaren 14a zen igandea. Hilabete bakoitzeko egun horretan ekitaldi bat antolatzen du herri asanbladak. Helburua 2016ko azaroaren 14an izan ziren atxilotetak gogoraraztea. Igandean 700 egun bete ziren atxilotetak izan eta Adur, Jokin eta Oihan preso daudela. "Hedabideen muntaia ondorengo polizia-, politika- eta zuzenbide-muntaia-ri bide eman zion. Hedabideek gezur nabarmenak modu ofizialean azalarazi zituzten. Horregatik daude preso". Gogorazi zuten euren eskubideak asko murriztu zituen FIES erregimenean izan zirela. Aratz, Iñaki, Jon Ander eta Julen "gaur egun euskal espetxeetan bahituta" daudela gogorarazi zuten. Igandean 131 egun ziren eta horiei 2016an egondako 37ak gehitu 2016an egondako irudirik izan dako irregulartasunak salatu zituzten eta egindako mobilizazioak gogoratu ere. "Lanean segitu beharra dugu, nahiz eta beldurrera eta isiltasunera zigortu nahi gaituzten. Borrokan eta kaleak okupatzen segitu behar dugu".

Beste bideo batean makina bat altsasuarrek egun haiei buruzko iritzia eman zuten hiru galderari erantzunez: zer sentitu zenuen irudi haiek ikustean?; Uste duzu Altsasuko errealitateari egokitzen direla? Nolako da Altsasu? Eta, azkenik, zein da honen helburua?

Deialdia

Igandean jakinarazi zuten, "gure helburua eskubideen eta askatasunaren alde indarrak batzea eta gizarte elkartzea da. Guztien artean zentzu komunari indarra ematea lortuko dugu. Zentzua da gure arma, eta egunero gehituz, egunero lan eginez, gizarte justuagoa lortu arte". Bide horretan heldu den hilabeterako, azaroaren 14rako hitzordua jarri zuten. Egundak atxilotetak izan zirela bi urte beteko dira, 730 egun preso.

Egun horretan, "begi-bista etorkizunean duen jardunaldi zabal eta anitz baten" antolaketan ari direla aurreratu zuten. "Hausnarketa, eztabaida eta aglutinazio" jardunaldia izanen dela esan zuten, "egoera makabro honi aurre egiteko, eta ikuspuntuan etorkizun justu, sano eta bidezko bat duena".

Espainiako Auzitegi Nazionalak Apeztegia espetxeratu egin du

Hernanin Etxerat elkartek duen bulegoan lan egin ondoren atxilotu zuten asteartean eta herenegun espetxean sartu zuten Karlos Apeztegia Jaka, ama etxarriarra duena. Horregatik, atzo informazio batzarra egin zen Etxarri Aranatzen. Haren askatasuna aldarrikatu zuten. Espainiako Auzitegi Nazionalako Diego Egea epaileak agindu du Apeztegia espetxeraztea: "ETA erakunde terroristako" kide izatea egotzen dio, zigor "larriak" dituen delituak egitea eta "ihes egiteko arriskua" dagoela gaineratzen du.

Epailearen arabera, Apeztegia Puertoko espetxean preso zegoela (22 urtez egon zen), ETako zuzendaritzarekin "komunikazio kanal egonkor eta segurua" eratu zuen. Epaileak dioenez, haren bitartez Malagako espetxeko zuzendariari buruzko informazioa helarazi zion ETari eta ACAIP espetxe funtzionarioen sindikatuko egoitzari eraso egitea proposatu omen zuen. Informazio hori 2003an Frantziak eskuratu omen zuen, Espainiako Barne Ministerioak jakinarazi duenez. Eta gaineratu du Frantziako Gobernuak Espainiakoari emandako ETaren kontrako jardunen dokumentazioaren artean zegoela Apeztegiaren kontra jotzeko agiria.

Erbiaren gainbehera ikertzeko ikerketa egiten ari dira

Nafarroako iparmendebaldean, Sakana barne, Europako erbiaren populazioak behera egin duela eta, eskualdeko erbi-zale talde batek, ehiztari taldeek eta Ingurumen Departamentuak bat egin dute. Haien helburua nagusiak bi dira. Alde batetik, egun dauden erbi populazioen eta haien ezaugarrien berri jasotzea. Eta, bestetik, bere zabal-kundean eta ugaritasunean eragiten duten faktoreak ezagutzeko. Horrela, ehiza, baso eta lehen sektorea biltzen dituen ikuspuntu orokorretik, dauden kudeaketa neurriak hobeto erabiltzeko. Nafarroako erbi ehiztariekin komunikazio eta elkar-lan sarea sortu nahi da.

Aberri Egun bateratu baterako deia EHko erditik

Euskal Herriko erdiguneko martxan egin zuen proposamena Independentistak Sareak

SAKANA

Igandean, euskal lurraldetasuna aldarrikatzeko helburuz Beriain ondoan dagoen Euskal Herriko Erdigunera ibilaldia antolatuta zuten Independentistak Sareak, Iratxo mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak. Hiru zutabe abiatu ziren bertara: Unanutik, Senosiainetik eta Irañetatik. Euskal Herriko Erdigunean bildu eta "askatasunaren oihua" zabaldu zuten bertatik.

Aberri Egunari buruzko hausnarketa egin behar dela ondorioztatu zuten. "2010etik hona Independentistak Sareak antolatuta ditu azken bederatzi Aberri Egunak. Jauzi berri bat egiteko unea iritsi dela uste dugu. Diadak Kataluniako prozesuan duen garrantzia hartu nahi dugu erreferentzia moduan, eta 2019ko Aberri Egunean urratsa egitea planteatzen dugu: gure herriaren etorkizuna erabakitzeke eskubidean eta demokrazian oinarrituta, eraikitzearen alde dauden eragile politiko eta sozial guztiek bultzatutako Aberri Egun bateratua antolatzea proposatzen dugu" adierazi zuten independentistek. Bere ustetan "euskal herritarren gehiengo oso zabalak eta diaspora osoak ilusio handiz" hartuko luke berri hori.



Preso, iheslari eta deportatuen aldeko martxa egin zuten Arbizun. UTZITAKOA

Presoen eskubideen aldeko manifestaziorako deia

Orain Presoak dinamikak Donostiako Antiguoko tunelera deitu du, bihar, 17:00etarako

SAKANA

Biharko mobilizazioarekin Orain Presoak dinamikak lau aldarrikapen zabaldu nahi ditu. Alde batetik, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzea. Bestetik, espetxean larriki gaixo dauden presoak aske gelditzea. Horrekin batera, euskal presoek normalean ezartzen zaien lehen gradua ezartzeari uztea eskatuko da. Eta, azkenik, estatu desberdinetan betetako zigorrak kontuan izatea eta horiek batzea ere exijituko dute.

Orain Presoak dinamikak "ETAren disoluzioaren ostean ireki den garai berria probestu eta aspaldidanik espero dugun aldaketa gauzatu dadin gure hondar alea jarri nahi dugu. Bakerantz eta elkarbizitzarantz eramango gaituen aldaketaz ari gara. Sufrimendu gehiago sortzeari utzi eta korapiloak askatu zein zubiak eraikiko dituen

jendarte baterantz eramango gaituena".

Horretarako, dinamikako ki-deek "ezinbestekotzat jotzen dugu milaka kilometrotara urrunduak diren eta giza eskubideak urratuak zaizkien euskal presoen egoerari irtenbidea ematea". Dinamikan jakitun dira "herri honetan bizi garen artean, minak eta oinazeak askotarikoak direla. Baina, argi dugu ere, oraindik orain, indarrean den espetxe politika aldatu ezean, giza eskubideak urratuak izateaz aparte, presoen senideak, bereziki haurrak eta adinduak direnak, sufrimendua pairatzen jarraitzen dutela".

Dinamikatik herritar guztiak gonbidatu dituzte "gurekin batera bakearen eta elkarbizitzaren norantzan ekitera eta espainiar gobernuari urratsak determinazioz emateko, hitzetatik ekin-tzetara igarotzeko, eskatzera".



lazko ikasketa-zerbitzu proiektuan lantegia erakusten. ARTXIBOA

Sakanako bi Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardunaldietan

Lanbide Heziketaren ikasketa-zerbitzu eta Sagrado Corazon ikastetxeen esperientziak ezagutaraziko dira

SAKANA

Nafarroako Eskola Kontseiluak XXII. Jardunaldiak antolatuta ditu. Berrikuntza proiektuak 2017-2018 izenburua dute jardunaldiek eta familia, irakasle, profesional eta udal arduradunei zuzenduta daude. Bi egoitza dituzte: astelehenetik asteazkene-ra Tuterako Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalaren egoitzan izanen da eta Iruñean, Nafarroako Museoa, azaroaren 6tik 8ra.

Hezkuntza komunitatetik eta komunitatera hausnarketak ekartzea bilatzen dute jardunaldi horiek. Helburu nagusiak dira praktiken aldaketa eta hausnarketaren harremana lantzea, Nafarroako hezkuntza sisteman esperientzia esanguratsuen arteko ezagutzak modu iraunkorrean komunikatzeko bideak diseinatzea eta esperien-

tzien ikusgarritasuna gizartera zabaltzea.

Partekatuko diren esperientzia esanguratsuen artean Sakanako bi daude. Alde batetik, Sakana Lanbide Heziketa institutua ardatz duen ikasketa-zerbitzu kooperazio proiektuaren berri emanen da (asteartean Tuteran eta azaroaren 7an Iruñean). Bestetik, Sagrado Corazon ikastetxeak *Solos en el olvido* proiektuaren berri emanen du (asteazkenean Tuteran eta azaroaren 8an Iruñean).

Saio guztien ordutegia 17:30etatik 20:00etara izango da eta al-dibereko itzulpena egingo da zeinu-hizkuntzara. Agertzea librea da baina beharrezkoa da Jardunaldietan aurretik izena ematea Nafarroako Eskola Kontseiluaren bitartez edo irakasleentzako Hezkuntza Departamentuaren formakuntzarako ohiko atarian.

#BEHINGOZ

EUSKARA
OFIZIALA
NAFARROA
OSOAN

MOBILIZAZIOA



Urriak 27, 17:00
Iruñea



Irteera puntuak

1

Gazteluko plaza

2

Media Luna

3

Iturrana - Abejeras



Amaiera

Autobus-geltokiko
belardía



Aste guztian zehar izan dira montaketa lanak.

Altsasu prest dago Nafarroa Oinez hartzeko

Igandean, urriaren 21ean, ospatuko da Nafarroa Oinez festa. 4,5 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Inklusibitatearen aldeko apustua egin du Iñigo Aritza Ikastolak, aurtengo festaren antolatzailea, "berezia egiten duena"

ALTSASU



Urteko prestakuntza ondoren iritsi da unea. Nafarroa Oinez festa ospatuko da urriaren 21ean Altsasan. Iñigo Aritza ikastolak antolatu du aurtengo festa, eta inklusibitatearen aldeko apustua egin dute, Eneida Carreño ikastolako presidentek adierazi duenez. *Bizi* da aurtengo Nafarroa Oinez leloa.

Ibilbidea inklusiboa

4,5 kilometroko ibilbidea prestatu dute eta ez dago aparteko arazorik egiteko, aldapa gutxi dituelako. Ibilbideak hiru bide ditu, eta planoetan zailtasunaren arabera kolore batekin agertzen da. Hortaz, irisgarritasun osoko bide bat dago, irisgarritasun maila ertaina eta hirugarrena behar bereziak dituzten pertsonendako pentsatua dagoena.

Hiru bideak Bizi, Kanta, Txio eta Dantza gunetara iristen dira. Gune bakoitzean askotariko jarduerak daude.

Carreñok adierazi duenez Nafarroa Oinez egun bateko festa baino gehiago bada. "Urte osoa daramagu eguna prestatzen". Gainera, egunean bertan egonen diren 1.200 boluntarioen lana eskertu du ikastolako presidentek.

Egitaraua

Adin guztietarako egitarau osatua prestatu du Nafarroa Oinezko antolatzaileak. Eneko Gartzandiak, jarduerak batzordeko kideak, musika eskaintzaren berri eman du: Tximeleta, Zartako-k, Moonshine Wagon, Oihane Vega, Anita Paker, Demode Quarter, Amaren Alabak, Tri-kiteens edota Gauargi taldeak izanen dira, besteak beste. "Bereziki azpimarratu nahi ditugu katalaneraz eta galizieraz abestuko duten bi talde: Xabi Sarria i el Cor de la Fera eta Ezetearre".

Erronka izanen da eguneko beste ekitaldi handia, izan ere, ekimenean parte hartuko duten gazteek gunez gune joanen dira

lehiatzen. Nafarroako ikastola guztietako kideek parte hartzen dute kirol eta trebezia ardatz duten probetan.

"Aurtengo edizioaren erronka nagusia Oinez inklusibo bat egitea izan da, aurrekoekin alderatuta berezia egiten duena". Urtean zehar egindako ekitaldi guztietan inklusibitatea landu dute, esaterako, bideoklipa gormutuendako lengoian itzuli zuten. Beraz, bereziki prestatuko ibilbidea ez ezik, panelak eta seinaleak izanen dira ibilbide osoan zehar.

Trafiko

Altsasu Gipuzkoaren eta Arabaren arteko bidegurutzean dago; hortaz, A-1 eta A-10 errepideen artean dago. Aparkalekuak prestatu dituzte herriko sarreretan eta gunetatik gertu. Gainera, Renfek tren eskaintza berezia prestatu du 6.500 eserleku gehiagorekin. Autobusak antolatu dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan ere.

NON ERABILI?



ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

VALCARCE

OLAZTI

0´06 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuakin, makilaje ukitua doan.

GK

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

13 UDABERRI LOREDENDA

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA

ARBIZU

Ile tratamenduak 5 €tan.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10 eko deskontua fruitu tropikaletan.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU



Igandean Nafarroa Oinez festa ospatuko da Altsasun Iñigo Aritza ikastolak antolatuta. Duela bederatzita urte Sakanan ere izan zen ikastolen festa, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolaren ardura izan baitzen Nafarroa Oinez antolatzea. Txikiak Handi izan zen leloa, eta haren harira Txikiak Handi hizkuntza gutxiuak aldarrikatzeko egitasmoa sortu zen. 2009an egin zen gaiaren inguruko lehenengo jardunaldia Nafarroa Oinez bezperan, eta bihar egingen dute bigarrena: *Txikiak handitzen: hizkuntza gutxituetako hedabideak munduan*. Hortaz, hizkuntza gutxituetako hedabideak izanen dira gaia. Altsasuko Iortia kultur gunean izanen dira jardunaldiak, 09:30etik aurrera.

Txikiak Handi egitasmoaren helburua hizkuntza gutxiuak aldarrikatzea da.

Bai, eta bide batez ikastola garen ez eta hezkuntza mundutik gatozenez, helburu horrekin batera ikastoletako eta atzerriko hainbat ikastetxetako ikasleak harremanetan jartzen ditugu, haien hizkuntzaren inguruan hausnarketa egiteko eta beraien arteko harremana sustatzeko. Aurten soziolinguistikaren inguruan Unitate Didaktiko bat prestatu dugu eta Iñigo Aritza ikastolako eta Valentziako Escola Gavina izeneko ikastetxeko ikasleak elkarrekin lan egiten ari dira bakoitza bere hizkuntzan. Beraz, hizkuntza gutxiuak aldarrikatzea da helburua, baina batez ere hizkuntza gutxituen artean elkarlana sustatzea.

Duela bederatzita urte jaitzen. Zer nolako egitasmoak egin dituzue?

Etxarri Aranatzan sortu zenean Txikiak Handi manifestua jaitzen. Gaur egun txikiakhandi.eus webgunean sinatzeko aukera dago eta edonork sinatu dezake. Urte horretan topaketa berezi bat egin zen hizkuntza gutxituen inguruan. Orduz geroztik erabaki zen egitasmoa iraunkorra izatea eta urtero egin izan ditugu hainbat jardura, eta, bereziki, hizkuntza desberdinekin kontaktuak egin ditugu. Kaxubi, kitxua, korsikera, valentziera eta abar. Ordezkariek etortzen dira eta harreman estua egin dugu. Gaur egun Interneten poderioz harreman hori indartuz joan da.

"Hedabideek funtsezko lana egiten dute euskararen alde"

UNAI ARELLANO TXIKIAK HANDI EGITASMOAREN ARDURADUNA

Txikiak Handi proiektua hizkuntza gutxiuak aldarrikatzeko xedearekin jaitzen. Bihar hizkuntza gutxiuak erabiltzen duten hedabideen inguruko jardunaldia egingen dute



Unai Arellano Txikiak Handi manifestua sinatzen. UTZITAKOA

Bihar, urriaren 20an, larunbata, Nafarroa Oinez bezperan, Txikiak handitzen: hizkuntza gutxituetako hedabideak munduan jardunaldiak egingen dituzue. Zergatik hedabideak?

Garbi daukagu ikastoletan zenbait helburu ditugula; gure hizkuntza proiektuan euskaldun eleaniztasunak sortu nahi ditugu. Hizkuntza gutxituei begiratuta hizkuntza bat hezkuntzaren bidez ikasten da, baina kanpoan egiten da hizkuntza horren erabilera. Hortaz, kanpora begira hedabideak daude. Gure kasuan, euskararen normalizazioari begira, hedabideek egiten duten lana funtsezkoa da. Beraz, erabaki dugu mundu mailako hizkuntza gutxiuak erabiltzen duten hedabideak elkartu, eta, alde batetik, hemen momentu honetan zer egiten ari garen ikusi eta, bestetik, kanpoan ere hizkuntza horiekin eta beraien hedabideekin egiten ari direna ikusi.

Esperientziak trukatzeko baliagarria izanen da.

Bai. Topaketa edo ekitaldia goizean egingen dugu. 09:30tik 14:00etara. Edozein pertsonak har dezake parte. Hizkuntza gutxituetan eta hedabideetan interesa duen edonork. Batez ere, hemen, Euskal Herrian, zorionez gauza asko egin dira gure hizkuntza biziberritzeko prozesuan eta konkretuki hedabideen alorrean. Baita Europa eta mundu mailan egiten ari diren gauzak. Interesgarria iru-

ditzen zaigu etorriko direnek gauza asko dituztela esateko. Hizkuntzaren erabilera ari garen honetan gora beherak egoten dira, eta batzuetan autoflagelazioan sartzen gara. Gauza polita da ikustea egin ditugun gauzak, zer egiten ari garen eta aurrera bagoazela.

Zein da hizkuntza gutxituen hedabideen egoera?

Denetarik dago. Zorionez Euskal Herrian gure hizkuntzaren biziberritze prozesu honetan azken berrogeita hamar urteetan aurrerapauso handiak eman ditugu. Guaixe da horren isla, esate baterako. Mundu mailan denetarik dago. Topaketara Yazmin Novelo etorriko da Mexikotik, Yucatandik, Radio Yuyum deitutako proiektu bat dute eta bera esataria da. Amerikako jatorrizko hizkuntzen egoera ez da hemengoa. Baina maia hizkuntzaren eta maia kulturaren alde egiten duten lana ikaragarria da. Eta hori ikusteko aukera izanen dugu bihar. European ere bada denetarik. Galesetik Elin Haff Gruffydd Jones etorriko da, Irlandatik Ronan Mac Con Iomaire RTE Irlandako Irrati telebistako gaelera arduraduna...

Omenduak egongo dira?

Txikiak Handik urtero dauka Nafarroa Oinez bere unetxo, eta kanpotik etortzen direnak biharko ekitaldian parte hartuko dute eta igandean Txikiak Handi manifestua sinatuko dute. Ez dira omenduak izanen omenaldirako beste batzuk daude, igandean jakinen direnak. Baina Txikiak Handi manifestuaren parte egingen dira.

Hizkuntza gutxiuak erabiltzen duten hedabideei buruzko egitarau osatua prestatu duzue biharko.

Egitasmoa Sakanen Mankomunitatearekin batera antolatu dugu. Beraien laguntzari esker antolatu dugu. Urte osoko lana izan da, eta eskertzekoa da. Ilusio handiz iristen gara biharko egunera. Ekitaldia 09:30ean hasiko da eta Johan Haggman-ek hartu du hitza. Bruselatik dator eta Europaren egoera orokorra azalduko digu. Jarraian Euskal Herrira itzuliko gara eta Idurre Eskisabelek eta Juan Kruz Lakastak hartuko dute hitza. Bigarren zatian eredu on batzuk ekarri nahi izan ditugu atzerriatik: Mexiko, Gales eta Irlanda. Gales eta Irlanda gertu daude eta egoera oso desberdina da.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 19

LAKUNTZA Mus azkarra txapelketa.
17:00etan, Gure nahia elkartean.

ALTSASU Mahai jolasak.
Gazteria zerbitzuak antolatuta.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Euskaraldia prestatzeko batzar irekia.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU 9 regalos del Alzheimer liburuaren aurkezpena.
19:00etan, Josefina Arregi klinikan.

LAKUNTZA Hegazti eta miruen migrazioa Sakanan hitzaldia.
19:45ean, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Antzerki zikloa: Tdiferencia konpainiaren *Salir de cuentas a los cincuenta*.
21:00etan, kultur etxean.

OLAZTI Irakurle taldea John Hersey idazlearen *Hiroshima* liburuaz hizketatzeko bilduko da.
21:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Moko zorrotza gazte-helduendako antzerkia.
22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Alpha filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 20

LAKUNTZA Zabalarte eguna. Hiriberri-Maddalen-Agiri-Hiriberri ibilbidea.
08:00etan, plazatik.

LAKUNTZA Hegazti migratzaileak irteera gidatua. Izena emateko: info@mirua.com edo 608560369.
09:30etik 13:00etara, plazatik.

IRURTZUN Irurtzongo zuhaitz motxatuen bisita gidatua biologo baten laguntzaz. Ondoren, bazkaria. Pixkuxar euskal txokoak antolatuta.
10:00etan, plazan.

LAKUNTZA Domund 2018 gazteendako magia ikuskizuna.
12:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Euskaraldian izena emateko aukera.
12:00etatik 14:00etara, plazan.

LAKUNTZA Miruak Sakanan irteera gidatua. Izena emateko: info@mirua.com edo 608560369.
16:30etik 19:00etara, plazatik.

ALTSASU Fortnite txapelketa. Gazteria zerbitzuak antolatuta.
18:00etan, Intxostiapuntan.

IGANDEA 21

ALTSASU San Lorenzo ermitara 50 km-ko ibilbidea eginen dute Barrankako mendi atalekoek.
08:30ean, Zumalakarregi plazatik.

ALTSASU Altsasu-Agurain-Opakua-Urbasa-Altsasu 75 km-ko ibilbidea eginen dute Barrankako errepide atalekoek.
09:00ean, San Juan plazatik.



ALTSASU Altsasuko VII. Arte Azoka. Urriaren 19tik azaroaren 6ra arte. Astelehenetatik ostiraletara 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:30etik aurrera eta igandetan 16:00etatik 20:30era.

ALTSASU Betiko mahai eta karta jolasak. Gazteria zerbitzua.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Alpha filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaraztea.
19:30ean, Udaletxe aurrean.

ASTEAZKENA 24

ZIORDIA Udazkena KM-0 sukaldatze tailerra: Menu dotorea Sakanako txekorrarekin. Ismael Alegria sukaldariarekin eta Ana Carmen Huarte dietista nutrizionistarekin.
19:00etan, Errekak Artean elkartean.

OSTEGUNA 25

ALTSASU Mugen festa: txistorrada eta puzgarriak. ADAMO.
18:00etatik 21:00etara, lortian.

ETXARRI ARANATZ Irakurle taldea Sergi Pamies idazlearen *Limoi bat imintziorik gabe jaten baduzu* liburuaz hizketaldia.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Oreina filma.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ESKELA



Iosu Garmendia Garcia



Beti gu biyotzetan yonko za

Zu kintuek

ZORION AGURRAK



Izadi
Zorionak!! 12 urte beteko dituzu jada! Ondo pasa zure egunean!! Infinito muxu etxekoan partez!!



JAIOTZAK

- Nasser Allah El Ogdii Ogdii, irailaren 24an Altsasun
- Adur Razkin Ezker, urriaren 12an Lakuntzan

EZKONTZAK

- Alberto Hernanz Miguez eta Ruth Riezu Pardo, urriaren 15ean Iturmendin

HERIOTZAK

- Iosu Garmendia Garcia, urriaren 13an Etxarri Aranatzan
- Maria Rosario Galartza Bergerandi, urriaren 13an Iturmendin

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Zure burua hobeto ezagutu nahi duzu? Norberaren ezagutzaren sakontzea pertsona bakoitzaren **Gizarte Estiloa** aztertuz. Azaroaren 6, 13, 20 eta 27 asteartean. 11:00etatik 12:00etara. Balioa 50 euro. Izen ematea: A.S.I Arreta eta Orientazio Psikologikorako Zentroan, Isidoro Melero, 18 behea Altsasu, edo 669 367 422 tfnoan.

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD. Altsasuko gazte txeraren III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako

gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK

Olaztiko irakurle taldea: Hitzordua gaur, ostirala, 21:00etan udal liburutegian. John Herseyren *Hiroshima* liburuaz izanen da hizketagai.

Altsasuko gazte txeraren jakinarazi dutenez, hainbat ekintzetan plaza libreak daude: Fortnite txapelketa (larunbatean, doan), lanerako gaitasun pertsonalak (azaroak 10 eta 24, 15 euro), munduko sukaldaritza (azaroak 27, 30 euro 3 hilabete) eta aerodantz (Lastailaren 5etik garagarriaren 14ra arte, 10 euro hilabete). Izena emateko 948 564 785 edo

608 617 778 telefono zenbakietara hots eginez edo inxostiapunta@altsasu.net e-postara idatziz.

Irurtzun-Arakilgo gazte eguna: Hilaren 27an, larunbatean, bazkaria izanen da Barazki-gunean. Izena eman nahi duenak Pikuxarretik pasa behar du asteazkena baino lehen.

Sexu-gune zerbitzua: Altsasuko gazteendako sexualitateari buruzko zerbitzua hileko azken ostiraletan da. Baina, feriak direla eta ostiral honetan izanen da. Zerbitzua Intxostiapunta gazte gunean dago 17:30etik 19:00etara gazteendako eta 19:00etatik 20:30era nerabeendako.

www.iragarkilaburak.eus



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarras.com
www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Iosu Garmendia Garcia
Ahazten denean bakarrik hiltzen da, eta guk ez zaitugu sekula ahaztuko

ESKELA



Iosu Garmendia Garcia

Mila esker gure lagunaren bidaidetik onena izateagatik

Lakuntzako kuadrilla

ESKELA

Iosu Garmendia Garcia



2018ko urriaren 13an hil zen
Etxarri Aranatz

Gure bizitzako partituran zure doinua beti entzungo da



Santusena familia

ESKELA



Iosu Garmendia Garcia



—Goian bego—
Iruñean hil zen 2018ko urriaren 13an, 31 urte zituela

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

MAGOTTEAUX

Magotteaux-eko zuzendaritza eta langileak
Urdiainen, 2018ko urriaren 19an

ESKELA




Iosu Garmendia Garcia

“Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi kantuz igortzen ditut nik penak ihesi...”
Zure ahots sakonak jarraituko du beti gure bihotzak berotzen nahiz eta zu ez ikusi. Elkarrekin abestea izan da elkar bizi, Iosu, zu ezagutzea, guretzat opari

BETI GURE BIHOTZETAN Etxarri Aranatzko Abesbatza

ESKELA



Josune Carrion Galarza

Gozamena izan da zu ezagutzea eta zurekin lan egitea

Altsasuko Osasun Etxeko lankideak

ESKELA



Pablo Garcia Garijo
Iosu Garmendia Garcia

Betiko izango zaituztegu gogoan

Hartzabal elkarteak



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 19



Larunbata, 20



Igandea, 21



Astelehena, 22



tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

-  948 19 70 70
-  @Grupolrache
-  Grupolrache
-  www.tanatoriosirache.es

Lau t'erdia: Ezkurdiak Altuna du arerio

PILOTA Lau t'erdiko Txapelketako finalerdiko ligaxkako 2. jardunaldian, Joseba Ezkurdiak Olaizola II.aren kontra ikusgarri aritu zen Jokin Altuna izango du aurkari igandean Atano III.ean. Promesetan Bakaikoa Etxeberriaren kontra ariko da bihar

Astehenean Tolosan jokaturako Lau t'erdiko finalerdietako ligaxkako 1. jardunaldiko azken partidarako ikusmina handia zen. Olaizola II.a eta Altuna III.a lehiatu ziren eta Amezketakoa lesiotik ongi osatua ote zegoen, hori zen katedraren jakin-mina. Bada, Altuna III.ak erakutsi zuen sasoi betean dagoela, bikain, eta Lau t'erdia irabazteko fabritoen artean dagoela. Sekulako ikuskizuna eman ondoren, 22 eta 12 irabazi zion gipuzkoarrak Olaizola II.ari eta ligaxkan bere lehen puntua lortu du. Pozik zegoen, partida irabazteaz harago, besoan ez zuelako minik izan.

Altuna III.a izango da, hain zuzen ere, Lau t'erdiko finalerdietako ligaxkako 2. jardunaldiko Joseba Ezkurdiaren hurrengo arerioa. Igandean jokaturako dute partida, Donostiako Atano III.ean (ETB1). Beste partidei dagokienez, gaur, ostiralean Urrutikoetxea eta Elez-



Altuna eta Ezkurdiak. LUIS M. UNCITI

kano II.a lehiatuko dira Balmasedan; bihar, larunbatean Olaizola II.a eta Victor ariko dira Labriten (ETB1); eta jardunaldia Tolosako Beotibarrek itxiko du astehenean: Bengoetxea VI.a eta Retegi Bi ariko dira.

Ezkurdiak eta Altuna III.ak puntu bana dute eta litekeena da partidako irabazlea zuzenean finalera sailkatzea. Hortaz, asko dago jokoan. Egoera berdinean daude Bengoetxea VI.a eta Retegi Bi. Aldiz, Urrutikoetxea eta Elezkano II.a eta Olaizola II.a eta Victor punturik gabe daude, eta finalerdietako ligaxkako 3. jardunaldirako aukerekin iristeko, asteburu honetako partidetan irabazi beharrean daude.

Promesak: Bakaikoa Peio Etxeberriaren kontra bihar

Promesen mailako Lau t'erdiko finalerdietako ligaxkan Joanes Bakaikoa 9 eta 22 irabazi zion Peña II.ari. Asteburuan bigarren jardunaldia dago jokoan: orain arteko irabazleak, Joanes Bakaikoa eta Peio Etxeberria, elkarren kontra ariko dira bihar, larunbatean, Labriten, eta galtaileak, Peña II.a eta Dario, elkarren kontra lehiatuko dira igandean, Atano III.ean.

ELOMENDIKO TXAPELKA

3. JARDUNALDIKO EMAITZA
Zaldua - Unziti **3-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Zaldua	9
---	--------	---

PARTIDUA

ASTEBURUAN

Zehaztu gabeko orduan
Bidezarra - Zaldua (Noain)

Zaldua da Elomendiko Txapelketako lider berria

Arakilgo Zaldua taldeak modu ezin hobean ekin dio Elomendiko Futbol Txapelkeltari. Asteburuan Lekunberrin jokaturako partidaren 3 eta 0 irabazi zion Zalduak Unzitari eta Elomendiko lider berria dugu Zaldua (9 puntu). Bidezarra bigarrenari eta Elomendi hirugarrenari hiruna puntu ateratzen dizkio Zalduak. Asteburuan Bidezarraren kontra ariko da Etxarrengo taldea.

PILOTA Alberto Ongay Bartzelonako Pilota Mundialetan

Asteburuan despedituko dira Euskal Pilota Mundialak. Bartzelonan jokatzeko ari dira, Vall d'Hebroneko CEM Olympics egoitzako frontoietan. Espainiako selekzioarekin dabilen 52 pilotariren artean dago Alberto Ongay satrustegierra. Eskuzko modalitatean dabil lehian arakildarra eta lan bikaina egiten ari da.

PREFERENTEAK

5. JARDUNALDIKO EMAITZA
Irunberri - Etxarri Aranatz **3-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Irunberri	12
5	Etxarri Aranatz	8

PARTIDUA

LARUNBATEAN

16:30 Etxarri - Castillo de Tiebas (San Donaton)

Etxarriarrek punturik ez Irunberrin

Euria ari zuela jokatu zuten Irunberrik eta Etxarrik. Irunberrik bi gol sartu zituen lehen zatian; Etxarri saiatu zen, baina Irunberrik ongi kontrolatu zuen joko eta hirugarren gola sartu zuen.

ERREGIONALA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Salesianos **6-0**
Liceo Monjardin - Altsasu **0-6**

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Lagun Artea	16
4	Altsasu	13

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:30 Lagun Artea - L. Monjardin (Zelai Berr)
16:15 Altsasu - San Ignacio (Dantzaleku)

Emaitza berdinarekin irabazi zuten gure bi taldeek 6 eta 0

Lakuntzan Lagun Artea erraz gailendu zitzaion Salesianos. Gaizkak, Ollok, Zubiriak, Mendietak, Aritzek eta Mimounek sartu zituzten golak. Liceo Monjardinen kontra antzeko moduan joan ziren gauzak. Aitor Flores (2), Christian, Eneko eta Javi Guisado izan ziren Altsasuko golegileak. Lagun Artea dugu erregionaleko lider berria.

EMAKUM. ERREGIONALA

5. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Univ. de Navarra **4-1**

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna	18
8	Altsasu	10

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

18:30 Kirol Sport - Altsasu (Orkoien)

Altsasu zortzigarrena da sailkapenean

Emakumezkoen erregional mailan, Altsasuko neskek 4 eta 1 irabazi zioten Universidad de Navarrari. Bihar Orkoien jokaturako dute, 18 punturik 4.a den Kirol Sporten kontra.

Azpiroz eta Olaetxea Nafar Kirol Jolaseko banakako txapeldunak

PILOTA 1. mailako kadeteetako finala irabazi zuen Azpirozek eta 1. mailako 22 urtez azpikoa Olaetxeak

Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Eskuz Banakako finalak jokatu ziren asteburuan. Ostiralean Irurtzongo Bi Aizpe pilotalekuak lehen mailako finalak hartu zituen eta larunbat goizean 2. eta 3. mailako finalak jokatu ziren Iruñeko San Juan klubean. Irurtzun klubeko bi pilotarik jokatu zituzten finalak: Azpiroz kadeteak eta Olaetxea 22 urtez azpikoa.

Nafar Kirol Jolasen Eskuz Banakako lehen mailako kadeteen txapela ez zen Irurtzundik mugitu. Azpirozek (Irurtzun) partida bikaina jokatu zuen eta

18 eta 7 irabazi zion Larraun taldeko Iriarteri. 21 minutuko partidaren, Azpirozek 4 tanto egin zituzten sakez Iriarteri; azken honek, aldiz, sakez tanto bakarra lortu zuen. Hasieran Iriartere aurreratu zen, baina Azpirozek berdindu eta hortik aurrera tarte ateratzen hasi zen, garaipe eroso lortu arte.

Nafar Kirol Jolasen Eskuz Banakako 1. mailako 22 urtez azpiko finalak ikusmin handia piztu zuen. Irurtzun klubeko Olaetxea eta Ardoi taldeko Arribillaga lehiatu ziren eta txapela



Nafar Kirol Jolasetako Buruz Buruko finalistak, Irurtzunen. NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

etxean geratu zen. Izan ere, 26 minutu iraun zituen partidaren Olaetxeak 6 tanto egin zituen sakez eta Arribillagak bakarra. Bi pilotariak ongi ibili ziren, hasieran nahiko paretsu, laura, bostera eta seira berdindu bai-

tzuten. Baina hortik aurrera Olaetxea aldea ateratzen hasi zen, 8 eta 7tik 16 eta 8ra pasa zen eta partida bere alde eraman zuen. Ederki aritu zen eta mezita jantzi zuen txapela, 18 eta 8 irabazita.



Ignacio Arbizu iturmendierra, topaketara eraman zuen katxarroetako batekin.

Bakaiku katxarroz gainezka esnatu zenekoa

AUTOMOBILISMOA 100 parte-hartzaileen artean, Fermin Paularenaren furgonetak edo food-truckak Katxarro berezienaren saria lortu zuen eta Clasicos San Ferminek jaso zuen Katxarro gehien ekarri zituen klubaren saria

Eguraldia lagun, arrakastatsua izan zen Bakarrekotxea elkar-teak antolatutako IV. Katxarro Eguna. 100 parte-hartzaile inguru bildu ziren Bakaikuko plazan eta motorrari lotutako euren altxorrak ikusgai jarri zituzten: autoak, motorrak, bizikletak, kamioiak... denetatik zegoen. Eta haiek ikustera jende asko hurbildu zen; horrela, eguerdian

baino lehen giro bikaina zegoen Bakaikun.

Ohiko Seat 600, Mini, Citroen 2 zaldi, Alpine... eta abarren artean, nobedadeak ekarri zituen aurtengo Katxarro Egunak. Tartean, Fermin Paularenaren furgoneta edo food-trucka zegoen. Izan ere Erro gainean mitikoa da Paularenaren furgoneta; negu zein udan bertan egoten da Pau-

larena, jakiak saltzeko bere furgoneta barruan, eta bertatik pasatzen diren erromesek, txi-

KATXARRO BITXIENAREN SARIA PAULARENAREN FOOD-TRUCKAK LORTU ZUEN

rrindulariek eta mendizaleek geldialdia egiten dute, kafea, edariren bat edo gozoren bat jateko. Fermin Paularenaren food-truckak ikusmin handia piztu zuen eta berarendako izan zen Katxarro eguneko sari bat, Katxarro bitxiaren saria hain zuzen ere.

Ignacio Arbizu iturmendiarrak ez zuen huts egin eta bi harribitxi eman zituen Bakaikura: garai bateko eskuzko makina paketatzailea, 70 urtetik gora izango zuena. Horretaz gain, 100 urte inguruko motorra eraman zuen, motor estatikoa, aroztegi batekoa zena. Bestalde, Clasicos San Fermin klubak jaso zuen Katxarro Eguneko beste saria, katxarro gehien eraman zituen klubarena.

Velosolex motorra Olaztira

Eguerdian, Bakarrekotxea elkar-teak Velosolex motorra zozketatu zuen, motorra aurreko gurpilean duen motor berezia. Motorra zozketatzeko txartel guztiak salduak zeudela, zozketa egin eta Olaztiko Iñaki Gastaminza izan zen zorteduna. Ondoren, ibilgailu guztiak mar-

txan jarri eta Altsasu-Urdiaingo San Pedrorra egin zuten joan etorria, giro bikainean. Eta festa behar bezala bukatzeko, Bakarrekotxea elkartean 100 pertsona inguru bildu zen bazkal-tzera. Beste behin, arrakastatsua izan zen Katxarro Eguna.



Garai bateko bizikletak.



Auto klasikoek ikusmin handia piztu zuten.

Etxarrin jokatu den XII. Uharteko Rollerski Saria aurkeztu dute

ROLLERSKIA Urriaren 27an jokatu da, rollerski klasiko modalitatean. Helduendako eta txikiendako proba da

Elurrik ez dagoenean eskia entrentatzeko edo eskian ikasteko modalitate bezala jaio zen rollerskia, baina kirol hau hazi eta bere entitate propioa hartu du. Euskal Herri mailan Rollerski Liga jokatu da, 8 proba

dituena, tartean Nafarroan antolatzen diren bi proba. Eta horietako bat urriaren 27an jokatu da, Etxarri Aranatzeko, XII. Uharteko Rollerski Saria, hain zuzen ere. Asteartean aurkeztu zuten proba Uharteko Ipar Eski

Taldeko Jeronimo Garciak, talde horretako kide, eskiatzaile eta biathloilaria den Olga Gartzandia etxarriarrak, Irrintzi Ski taldeko Aritz Pascualek eta Izaskun Ijurko antolatzaile etxarriarrak.

Urriaren 27an goizeko 11:00etan abiatuko da nagusien proba, Lizarragabengoatik (9,8 km). 5 minutu beranduago hasiko da 14 urtetik beherakoena, Etxarri Aranatzeko (2,8 km). Parte hartzeko izena ematea urriaren 27an egin beharko da, 10:00etan.



Urriaren 27an jokatu da proba, baina asteartean aurkeztu zuten.



Garikoitz Flores bere barketa barruan, kazetariari erantzuten. DANIEL LOPEZ JURADO

Garikoitz Floresek ez zuen Italian zortea alde izan

AUTOMOBILISMOA Gubbioko FIA Hill Climb Masterseko bigarren igoeran errepidetik atera zen pilotu lakuntzarra

Espainiako Automobilismo Federazioak urriaren 4a eta 10aren artean jokaturako Italiako Gubbioko FIA Hill Climb Masters lasterketa prestigiotsuan aritzeko hautatu zuen Garikoitz Flores pilotu lakuntzarra, Joseba Iraola, Javier Villa eta Kike Perelloekin batera. 170 pilotu inguru lehiatu ziren, puntakoak.

Gubbioko lehendabiziko igoeran txukun aritu zen lakuntzarra (BRC BR49-Kawasaki): sailkapen absolutuan 45.a sailkatu zen (1:36.33), bere mailan –Open SC–, hirugarrena. Baina bigarren igoeran bidetik atera zen. “Ongi noian, baina gehiegi estutu nuen eta errepidetik atera nintzen. Ez dut aparteko kolperik, baina autoak matxura handiak ditu” azaldu digu pilotuak.

Gubbioko FIA Hill Climb Masters Christian Merli italiarrak (Osella FA30-Zytek) irabazi zuen

(1:17.85). Joseba Iraola bizkaitarra (Norma M20FC-Hartley) 14.a sailkatu zen (1:24.23).

Espainiako Mendi Igoeren 2. kategoria irabazi duenez, hurrengo denboraldian 1. mailan aritu beharko litzateke Flores. Horrek aurrekontu handia eskatzen du, autoa guztiz matxuratu duela kontuan hartuta, are gehiago. Garikoitzek aukera ezberdinak aztertuko ditu eta orduan erabakiko du txapelketa heldu edo Euskal Herriko eta inguruko probetan ariko den.

Eneriz Besga Kantabrian

Larunbatean IV. Granjako Igoera jokatu zen Castro Urdialesen. Asier Bidaburu (Reynard Rf10b) izan zen azkarrena (2:10.33) 44 pilotuen artean. Eneriz Besga olaztiarra (Citroen Saxo) 26.a sailkatu zen (2:51.21).

ordenatuta, intentsitatearekin; garatu dugun estrategiak fruitua izan du eta atzera ere gu izan gara. Irabaztea behar beharrezkoa genuen, ea garaipen honek bulkatzen gaituen” azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

El Pozo Murcia da lider berria (12 puntu). Osasuna Magna 14.a da (4 puntu) eta bihar, larunbatean, Galizian jokatu du 4 punturekin sailkapenean 13.a den O Parrulo Ferrol taldearen kontra. Arerio zuzenen arteko partida denez, asko dago jokoan.

ARETO FOTBOLA Osasuna Magna: azkenean iritsi da garaipena

Ostiralean Osasuna Magna Xotak Palma Futsal liderra hartu zuen. Berdinketa bat eta hiru partida galdu eta gero, urduritzen hasiak zeuden berdeak, baina azkenean iritsi zen esperotako garaipena: Dani Saldisek, Araçak, Roberto Martilek eta Rafa Usinek sartutako golei esker, 4 eta 0 irabazi zion Osasuna Magnak Palma Futsal. “Ongi jokatu dugu,



Futbolariak taldeka atera zuten argazkia, eta bukaeran, denok batera jarri ziren kamararen aurrean. Jende asko bildu zen Dantzalekun eta ha

Sociedad Deportiva Alsasuak 50 urte

FUTBOLA Aurreko ostiralean 2018/2019 denboraldiko Altsasu klubeko 14 futbol taldeen aurkezpena egin zuten Dantzalekun. 50. urteurrenaren harira, Migel Angel Montesinosi, Gregorio Riezuri eta Guzman Lobori omenaldi sorpresa egin zieten

1968ko otsailaren 5ean sortu zen Sociedad Deportiva Alsasua (SDA). 50 urte beranduago, gaur egun SDA klubak 380 bazkide ditu eta futbol, pilota eta txirrindularitza atalak. Futbol sekzioak du pisu gehien. Aurreko ostiralean 2018/2019ko futbol taldeen aurkezpen ekitaldia egin zuten Dantzalekun.

14 futbol talde, 275 futbolari eta 20 entrenatzaile

SDAren futbol atalak osasun bikaina dauka. 14 futbol talde ditu Altsasuk: erregionala (Benito Anguas entrenatzailea), jubenila (Peio Goikoetxea entrenatzailea), kadeteen mailako bi talde (Paulette Bergara-Asier Miño eta Javier Fernandez-Gorka Chamorro entrenatzaileak), haurren mailako bi (Julian Sevilla-Ekai Urkijo eta Asier Salgado-Mikel Lakuntza entrenatzaileak), kimuen mailako bi (Imanol Martinez eta Nabil Essobai entrenatzaileak), benjaminen mailako hiru (Aitor

Lara, Ivan Arevalo eta Sonia Alonso entrenatzaileak) eta aurrebenjaminen talde bat (Iñaki Cristobal entrenatzailea). Eta emakumezkoetan, bi talde daude: erregional mailakoa (Alfonso Castellanos eta Ane Cantero entrenatzaileak) eta Futbol 8 mailakoa (June Leza eta Irati Igoa entrenatzaileak).

“275 futbolari inguru eta 20 entrenatzaile ibiliko gara lanean” azaldu zigun SDAko futbol koordinatzaile Alfonso Castellanos. “Klubaren helburuak kirola sustatzea, neska-mutilen arteko laguntasuna bulkatzea, eta gazteak futboleko trebatzea da, oinarri sendoarekin lehiatzen ikas dezaten. Eta emaitza onak badatoz, hobe” gaineratu zuen

SDA KLUBEAN URTE LUZEZ EGINDAKO LANA ESKERTU ZIEN MONTESINOSI, RIEZURI ETA LOBORI

Castellanosek. Aurkezpen ekitaldian futbolariak aurkeztu zituzten eta talde argazkiak atera zituzten.

Montesinosi, Riezuri eta Lobori omenaldia

SDAko zuzendaritzak Miguel Angel Montesinos, Gregorio Riezuri eta Guzman Lobo omenu zituen ekitaldian. Omenaldi sorpresa izan zen, eta hiruek hunkituta jaso zuten klubeko kideen aitortza. Oroigarria, loreak eta aureskua izan ziren euren dako.

72 urteko Montesinos hasieratik da SDAko kidea. “Sorreran bi hautagaitza zeuden eta Vitorino Bengoetxeak zuzendutakoa hautatu zen” gogoratu zuen. Berarentzat hitz ederrak izan zituzten. “Montesinos elkarteko motorra da. Ordu etengabeak ematen ditu bulegoan, arazo guztiak konpontzen, diru-laguntzak eskatzen, paper amaigabeak betetzen... bere kontaktuei esker hau guztia posiblea da” azaldu zuen Eugenia Rosak. Beste omen-



Errealeko jarlekuak itxura berria goraiatu zuten.

dua Guzman Lobo izan zen. "Gure argazkilaria da, kartelak egiten dituena eta beti laguntzeko prest dagoena. Informatikarekin errotzen dugu" gaineratu zuten elkarteko juntakoek. Eta hirugarren omendua 73 urteko Gregorio Riezu izan zen, 4 hamarkada baino gehiago kontabilitate eta administrazio lanak egiteko ardura izan duena, elkarteari zenbata ezinezko orduak eskaini dizkiona. "Zuen lana gabe elkartek ezingo zuen aurrera jarraitu horrenbeste urtez. Juntara sartu ginenean ez genekien

nondik hasi ere, eta zuen laguntzarik gabe, ez dakigu zer egingo genukeen" aitortu zuen SDAko egungo juntak.

Errealeko jarlekuak

Dantzalekuko harmailek itxura berritua eta ederra dute, elkarlanaren truke. Altsasuko Udalak harmailen fatxada berritu zuen, eta SDAko kideek, auzolanean, harmailak margotu dituzte, harmarria barne, eta lehengo porlanezko harmailen gainean Errealak utzitako jarleku urdinak jarri dituzte, garbiketa lanak egiteaz aparte. "Guzman Loberi esker lortu ditugu jarlekuak. Bera Errealeko bazkidea da, eta Errealeko Jose Luis Agirre kanpoko-futboleko koordinatzaileekin jarri zen harremanetan. Horrela, Anoetako lehengo zelaiako 650 aulki eman dizkigu Errealak; horietatik 400 inguru jarri ditugu eta besteak erreserbarako gordeak ditugu" azaldu zuten.

SDAko zuzendaritza

Jone Borrega da SDAko presidentea, Carlos Villalobos presidenteordea, Eugenia Rosa diruzaina, Mañu Navarro idazkaria, eta Jesus Sayas, Martin Somocurcio, Felix Mazkiaran eta Iñaki Etxaiz bokalak. Txirrin-dularitza sekzioaren ardura Felix Mazkiaranek du, pilotarrena Mañu Navarrok eta Jesus Sayasek eta futbol koordinatzailea Alfonso Castellanos da.



Hiru omenduendako erabateko sorpresa izan zen omenaldia; hunkituta zeuden.



Erregional mailako 2018/2019 denboraldiko Altsasu taldea, aurreko ostiraleko aurkezpenean. GUZMAN LOBO

Erregionala: Altsasuk mailaz igo nahi du

Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) taldeko futbol koordinatzaile Alfonso Castellanak argi eta garbi azaldu digu erregional mailan dabilen Altsasu taldearen aurtengo helburua zein den: "Aurten anbizio gehiago dugu, gure helburua preferente mailara igoztea da. Aurreko urtean igoera faserako sailkatu ginen, 15 urte eta gero, eta aurten sailkatzea eta igoera faseko lehian buru-belarri egotea nahi dugu, preferentera igozkeo. Taldea badugu".

Talde sendoa

Duela bizpahiru urte Altsasuko erregional taldea sortzea, trebatzea eta sendotzea zen helburua, taldea egitea, eta talde sendo hori dagoeneko egina dagoela iritzi dio Castellanak. "Taldea oinarri sendoa du, iazko talde berbera baita. Ez dugu bajarik izan; jubeniletatik igo diren Aitor Lopez, Jon Lanz eta Jon Insausti eta futboletik kanpo egon ondoren taldera bueltatu den Migel Gomez dira dauden altak.

Entrenatzaileak ere, Benito Anguasek, ongi ezagutzen du taldea. "Aurreko denboralditik dago gurekin lanean, aurreko urteko abenduan hasi zen. Jokalariekin harreman bikaina dauka eta oso giro ona dago

aldageletan. Futbola oso ongi ezagutzen du, Alaves eta Osasuna Promesas taldeko jokalaria izan zen, eta taldea ongi eramaten daki" gaineratu du Castellanak.

Denboraldia ongi hasi dute

Altsasuk bikain ekin dio denboraldiari. Jokaturako sei partidetatik 4 irabazi ditu, 1 berdindu eta bakarra galdu. "Uste dut gaur egun sailkapenean goian dauden lau taldeak, Lagun Artea, Lagunak, Ardoi eta Altsasu izango direla erregional mailako lehen multzoko talde sendoenak; sorpresarik ez badago igoera faserako sailkatzeko faboritoen artean egongo dira" azaldu digu Castellanak.

Hala ere, koordinatzaileak aipatu digu igoera faserako sailkatzea gauza bat dela, baina igoera fasea beste kontu oso ezberdina dela. "Erregionalean lau multzo daude eta multzo bakoitzeko lau talde onenak sailkatzen dira igoera faserako. Eta fase horretan edozer gerta

"ERREGIONALEAN URTE UGARI EGON ONDOREN, IGOZTEA DAGOKIGU"

"ONGI HASI DUGU DENBORALDIA; EA IGOERA FASERA SAIKATZEN GAREN"

daiteke, batzutan sekulako loteria da. Dena den, horrenbeste urte erregionalean egon ondoren, igoztea tokatzen zaigu. Ea hala den" aitortu du Castellanak.

18/19 Altsasu erregionala

Atezainak: Ekai Urkijo eta Miguel Gomez

Defentsak: Mikel Cordero, Aitor Lopez, Paulette Vergara, Aitor Lara eta Gorka Martinez

Erdilariak: Esteban Letona, Javier Guisado, lokin Lobo, Jon Lanz, Jon Insausti, Xabier Ormazabal eta Jon Mendia

Aurrelariak: Imanol Martinez; Joseba Lizarraga, Joseba Montoya, Raul Claver, Patxi Letona, Aitor Flores, Imanol Lobo, Eneko Garasa eta Christian Leon

Entrenatzailea: Benito Anguas



2017an Uharte Arakilen jokatu zen.

Sakanako Herri Lasterketan izena ematea zabalik dago

ATLETISMOA Azaroaren 3an izanen da, Olaztin. Urriaren 21 baino lehen izena ematea merkeagoa da

Olatzagutiak hartuko du XVIII. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia, azaroaren 3an. Lehenik eta behin kategoriatxikiko probak jokatu dira, 16:00etatik aurrera. Ondoren, 17:00etan, proba nagusiarri ekingo zaio (7,5 km). Juniorrak helduekin batera ariko dira, distantzia bera egingo dute, eta kadeteak ere proba nagusian ariko dira baina bi buelta emango diote zirkuituari, 5 km osatuz. Helduen lasterketarekin batera Errefuxiatuen Aldeko Martxa abiatuko da.

Izena ematea: kirolprobak

Kategoria txikikoek lasterketaren egunean eman beharko dute izena, Olaztin, baina kadeteek, gazteek, seniorrek eta beteranoek aurretik eman dezakete izena, www.kirolprobak.com web gunean. Gazteek eta kadeteek dohain dute parte-hartzea, baina seniorrek eta beteranoek, ordaindu beharko dute. Urriaren 21a baino lehen izena ematen badute, txip horia dutenek 6 euro ordainduko dute eta alokairuzko txip txuria behar dutenek, aldiz, 7 euro. Urriaren 21etik aurrera, txip horidunek 8 euro pagatuko dituzte eta alokairuzko txip txuria hartuko dutenek, aldiz, 9 euro.



Beñat Katarain, Euskal Mendi Seleksioko gainontzeko kideekin, Lungolago Marconi di Limone atzean dutela. UTZITAKOIA

Katarain 39.a Limone Extreme Skyrace proban

MENDI LASTERKETAK Skyrunner World Series Txapelketarako baliagarria den azken proban iazko denbora hobetu zuen lakuntzarrak, 43 segundotan. Kilian Jornet seigarrena sailkatu zen baina bera da Skyrunner World Series 2018ko txapelduna

Larunbatean Limone Extreme Skyrace mendi lasterketa prestigiosuan jokatu zen Italiako Lungolago Marconi di Limonen. Munduko Skyrunner World Series Txapelketarako puntuagarria zen azken proba zen Italiakoa, eta mendi korrikalari onenak lehiatu ziren bertan. Aipatzekoa da Beñat Katarain lakuntzarra Euskal Seleksioko bere taldekiekin aritu zela: Ander Iñarra, Xabi Macias, Iban Letamendi, Asier Larruzea, Asier Alonso, Julen Martinez, Oihana Azkorbebeitia eta Mayi Mugika.

29 km eta 2.500 metroko desnibel positiboko proba gogor bezain ikusgarria bukatzea 534 korrikalarik lortu zuten, eta

beroa izan zen etsai nagusia. Aipatzekoa da korrikalari gazteek sorpresa eman zutela. Davide Magnini (2:59:24) ikusgarri aritu zen eta lau minutu luze atera zizkion Rémi Bonneti (3:04:14). Oriol Cardona izan zen hirugarrena (3:06:07). Cerdanyako Kilian Jornet korrikalari ezaguna seigarrena sailkatu zen (3:10:45), baina Munduko Skyrunner World Series 2018 txapelduna izatea lortu zuen. Gogoratu, aurretik Eskozian Skyrace Munduko txapelketa irabazi zuela ere Jorret. Urrezko urtea berarendako. Emakumezkoetan Tove Alexandersson irabazi zuen (3:31:36), Ragna Debatsen (3:40:07) eta Sheila Avilesen (3:46:28) aurretik.

lazko marka hobetzen

Beñat Katarain 39.a sartu zen Limone Extreme Skyrace helmugan (3:37:41), lan bikaina eginda. Izan ere, aurreko urtean egindako denbora (3:38:28) 43 segundotan hobetu zuen lakuntzarrak. Bere taldekide Ander Iñarra 17. postuan sartu zen (3:21:37) eta 9. amaitu du Munduko Kopa, 2018ko Migu Run Skyrunner World Classic Series.

Italiatik bueltan, larunbatean, urriaren 20an jokatu den Leire Trailean (21 km, 1.400 metroko desnibel +) ariko da Katarain, eta horrekin bukaera emango dio aurtengo mendi denboraldiari. Ondoren, crossen denboraldiari ekingo dio.

Mikel Olló txapelduna

BOTXAK Guztira 14 botxazalek hartu zuten parte Banakako Iratxo Botxa Txapelketan. Asteburuan final laurdenak, finalerdia eta finalak jokatu ziren. 3. eta 4. postuak erabakitzeo finalean Txutxurri gailendu zitzaion Julen Iribarreni (0 eta 15) eta final handian Mikel Olló izan en nagusi, 15 eta 3 irabazi baitzion Edurne Elustondori.



Ioana Lopez 2. emakumea izan zen.

MENDI LASTERKETAK Beraza 9.a Agoizko proba luzean

Asteburuan Agoizko Mendi Lasterketa jokatu zen, bi distantziantan. Distantzia luzean Xabier Zarranz (1:55:32) eta Nerea Amilibia (2:30:16) gailendu ziren proba despiditu zuten 79 korrikalarien artean, eta aipatzekoa da Jose Luis Beraza uhartearra 9.a sartu zela helmugan (2:05:25) eta probako lehen beteroa izan zela. Jon Garasa 71.a sailkatu zen (3:07:06).

Proba laburrean Asier Labairu (1:02:33) eta Rebecca Peña (1:23:20) izan ziren txapeldunak. Gizonezkoetan Aritz Munarriz etxarriarra podiumera igotzear egon zen baina, azkenean, laugarrena sartu zen (1:05:22). Eta emakumezkoetan aipatzekoa da bigarrena Ioana Lopez etxarriarra izan zela (1:25:37), sailkapen orokorrean 38.a.

Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Ibon Ubeda 14.a sailkatu zen (1:24:27), Arkaitz Munarriz 19. (1:18:25), Jorge Iradi 23.a (1:20:45), Francisco Javier Moreno 32.a (1:24:02) eta Javier Camuel 66.a (1:36:49).

MENDIA Alex Txikon Everesteko erronkaz ariko da Altsasun

Alex Txikonen azken erronka Everest neguan eta oxigeno artifizialik gabe igotzea izan zen. Saiakera hori dokumentalera eraman du eta "Everest, un reto sobrehumano" dokumentala erakustera etorriko da Altsasura azaroaren 9an, 19:00etan, Katealde enpresak, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Altsasuko Udalak gonbidatuta.

Sakanako artisten erakusleioa, Altsasun

Arte Azokaren zazpigarren edizioa mustuko dute gaur, urriaren 19an, ostirala, Altsasuko Iortia kultur guneko erakusketa gelan, 19:30ean. Azaroaren 6ra arte izanen da. Sakanako artisten obren erakusketa kolektiboa da Arte Azoka

ALTSASU

Sakanako artisten erakusleioa izateko helburuarekin jaio zen Arte Azoka duela zazpi urte. Gaur mustuko dute azoka Iortia kultur guneko erakusketa gelan. Azaroaren 6ra arte egonen da zabalik eta urriaren 28an azoka egingen dute. Artebide elkarteak antolatzen du erakusketa.

"Sakanan zer lan egiten den eta zer egiten dugun erakusteko leku bat da". Argiñe Berastegi artista arbizuarrak urtero parte hartu du Arte Azokan. Erakusketa urtero berritzen da, izan ere, nahiz eta Sakanako artistak izan haien lanak urtero ezberdinak dira: "aurten erakutsiko ditudan lanak birziklatu ditut, orain arte erakutsi ez nituenak erakutsiko ditut". Hala ere, badira Azokarako bereziki prestatzen dituzten artelanak ere, Berastegik azaldu bezala. Sakanako artistak ez ezik, artista gonbidatuak ere badaude.

Erakusketa

Eskultura, margoak, arte instalazioak, argazkiak, ikus-entzunezkoak eta artelan figuratiboe-tatik abstraktuenetara doazenak ere. Arte Azokan arte diziplina guztiak ikus daitezke. Sakanako 25 artistek parte hartuko dute. "Erakusketan emakumezkoen parte hartzea handiagoa da", azaldu du Helena Santano artista altsasuarrak. Hortaz, hemezortzi emakumeen lanak erakutsiko dira. Gainera, hamar artista gonbidaturen lanak ere izanen dira.

Erakusketa oso garrantzitsua da Sakanako artistendako. "Lehenengo urtetik parte hartu dut erakusketan, eta ilusioa egiten dit. Gainera, orain Altsasun bizi naiz eta ilusioa handiagoa da". Erakusketa ez ezik, izenak dioen bezala, azoka bat da; hortaz, erakusketan dauden lanak eros daitezke. "Altsasuko ferietan, gainera, salmahaiak jartzen



2017ko Arte Azoka erakusketa.

ditugu eta artelan gehiago ekartzten ditugu; azoka moduko bat sortzen dugu". Harreman komertzialak ere egiten direla ere dio Berastegik: "agian norbaiti erakusketan dagoen artelana gustatzen zaio, zurekin hitz egiten du, eta beste lan bat eskatzen dizu".

Artebide

Altsasuko Arte Azoka berezia da parte hartzen duten artistendako; izan ere, Berastegik azaldu bezala, artista batek bakarrik erakusketa betetzeko lan handia egin beharko luke, aldiz, erakusketa kolektiboetan beste modu batera erakusten dira gauzak: "niri kolektiboki erakustea asko gustatzen zait".

Artebide elkarteak sustatu du Arte Azoka. Sakanako artistak biltzen dituen elkarte da Artebide. "Biltzea erabaki dugu gauzak kolektiboki egin ahal izateko", adierazi du Helena Santano elkartearen kideak. Arte Azokaren katalogoa kaleratuko dute eta etorkizunean tailerrak, arte hitzaldiak eta kultura-trukeak antolatu nahi dituzte. "Dinamismoa sortu nahi dugu".

Artistak sustatzea da Artebide elkartearen helburuetako bat. "Galerietan erakusketak egiten ez dituzten artisten irabazirik gabeko agenteak izan nahi dugu". Elkarteak irekia da; "nahi duenak parte har dezake".

Sakanako artistak

Sagri Mauleon, Maite de Miguel, Lali Burgoa, Marta Cortabarría, Yolanda Arnedo, Itziar Nazabal, Nagore Villar, Maider Perkatx, Lara Subterranean, Helena Santano, Argiñe Berastegi, Itxaso Altzelai, Elur Oliz, Ana Goikoetxea, Rosa Arnanz, Patricia Paats, Manolita Thunders, Yolanda Mazkarian, Angel Antonio Agirre, Jesus Maria Olmos, Joseba Salegi, Koldo Arnanz, Morkots, Carlos Rivera eta Jokin Kale.



Joxe Aldasoro, Castillo Suarez idazlea eta Eneko Barberena.

Gastronomia ardatz duten kontakizunak sarituak

'Letrak ahora' Arbizuko udalak antolatutako literatura lehiaketaren sariak banatu zituzten igandean

ARBIZU

Txistor Egunaren hamargarren edizioa ospatu zen igandean, urriaren 14an, Arbizun. Urteurrenaren harira, Arbizuko udalak gastronomia gai duen literatura lehiaketa antolatu zuen: 'Letrak Ahora'. Bi sail zeuden: narrazio laburra eta poesia eta guztira hamabost lan aurkeztu dira. Igandean sariak banatu zituzten. Joxe Aldasorok narrazio laburrean eta Eneko Barberenak poesia atalean irabazi zuten.

Hamabost lan aurkeztu dira *Letrak Ahora* gastronomia ardatz duen literatura lehiaketara. Narrazio laburrak sailean hamaika lan aurkeztu dira eta poesian lau lan. Epaimahaia Jon Barberena eta Castillo Suarez idazleek osatu dute. Barberenaren esanetan, "literaturak ez du jende andana erakartzen, baina guk arrakastaz hitz egin dezakegu". Maila ere "ona" izan dela esan dute epaimahaiaren kideek.

Sarituak

Joxe Aldasoro etxarriarraren *Bernoneko azken afaria* lanak irabazi du narrazio laburra sailean. Nobela beltza ukituak dituen afari baten inguruko narrazioa da. Madarikazioz beteriko baserri batean ospatuko den azken afari baten nondik norakoak kontatzen ditu. "Iraganeko usadio gastronomikoen inguruko hiztegi mardula eta landua nagusitzen da, eta aspaldiko ohiturak eta bizimodua

agerian uzten ditu", azaldu du Jon Barberena idazleak. Base-riak Euskal Herrian maila ekonomikoan eta sozialean izan duen garrantzia oso ongi islatu duela gaineratu du.

Poesia atala *Aranondoaren azpian* lanak irabazi du. Eneko Barberena arrasatearra da egilea. Gastronomia eta erotismoa uztartu ditu Barberenak. "Erritmoa eta gauzak esateko dotoretasuna nagusitzen dira bere olerkian". Bi egileek 100 euroko saria jaso dute eta narrazio laburra eta poesia biltzen duen argitalpen ilustratua bat ere.

Lehenengo edizioa

Monika Etxeberria Arbizuko Kultura zinegotziak azaldu duenez, horrelako lehiaketak interresgarriak dira idazle eskoletan idazten hasten direnendako: "haien lana plazaratzen auzarteko horrelako gai ireki batek aukerak ematen ditu".

Txistor Egunaren hamargarren urteurrenaren harira egin dute gastronomiari buruzko literatur lehiaketa lehenengo aldiz "zerbait berria proposatzeko ideiarekin". Arrakasta ikusita datozen urteetan "errepikatzea eta mantentzea" ongi legokeela azaldu du Etxeberriak: "gaiari buruzko liburu baten aurkezpenarekin batera". Iritzi berekoa da Jon Barberena idazlea. Txistor egunak kultura literario eta gastronomikoa zabaltzeko aukera ona izan daitekeela gaineratu du Kultura zinegotziak.

'Cosimoren Katiuskak' albuma aurkeztu dute

Etxepare literatura sariaren irabazlea izan zen Ana Ibañez ilustratzailearen eta Dani Martirenaren 'Cosimoren Katiuskak' haurrentako lana. Pamiela argitaletxeak argitaratu du. Cosimo haurra eta parke txiki bat dira kontakizunaren protagonistak

SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako beste 21 erakunderen euskara zerbitzuek elkarlanean antolatzen dute Etxepare literatura saria. Euskaraz sortutako haurrentako albumen produkzioa sustatzea du helburu lehiaketak. Ekainean eman zuten aurtengo edizioaren irabazlearen izenburua: *Cosimoren Katiuskak*. Ana Ibañez ilustratzailearen eta Dani Martirena idazlearen lana da. Albumaren aurkezpena egin dute orain. Pamiela argitaletxeak argitaratu du.

Italo Calvinoaren *II bareno rampante* liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute egileek *Cosimoren Katiuskak* istorioa sortzeko. Cosimo eta parke txiki bat dira protagonistak. Cosimok zuhaitz baten gainean etxola bat eraiki nahi du eta hortik inguruari erreparatzen dio. Albumak haurrei baliabide berriak erakutsiko dizkie, eta edertasunaren aldarrikapena ere zabaltzen du lanak. "Gogoetarako kontakizuna da", epaimahaiaren esanetan.

Leire Bilbao idazleak, Leire Salaberria ilustratzaileak eta Asun Agiriano haur bibliotekariak osatu dute epaimahaia. Haien iritziz *Cosimoren Katiuskak*



Ana Ibañez ilustratzailea eta Dani Martirena idazlea. UTZITAKOIA

kak album ilustratu batek izan behar dituen ezaugarriak "bikain" erakusten ditu. Hortaz, irakurlea adi mantentzea lortzen du eta heldu baten konpainiarekin irakurri behar da. Bai testua bai ilustrazioak indartsuak dira gaineratu du epaimahaia: "bi linguaiak aberatsak dira".

Dani Martirena Indart albumaren idazlea legasarra kazetaria da eta EITB-ko albistegietan lan egiten du. Hainbat literatura lehiaketetan parte hartu du eta bere lanak sarituak izan dira. Esaterako *Bero haizeak* eta *Esku*

hori Basauriko Euskarabilla elkarteak antolatutako ipuin erotikoen lehiaketan sarituak izan ziren. Iruñeko Udaleko idazle berriendako literatura lehiaketan ere parte hartu du, eta lehen saria jaso zuen 2015ean.

Ana Ibañez Elosuak egin ditu albumaren ilustrazioak. Arte Ederretan lizentziaduna da, eskultura espezialitatean, eta arte eskolan grabatu eta estanzazio teknikak ikasi zituen. Hainbat erakusketetan parte hartu du eta Iruñeko Gazte Sarietako hainbat irabazi ditu ere.

Denboraren igarotzeaz hausnartzeko antzerkia

'Moko zorrotza' antzezlanaren izenburuko antzerkia izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean gaur, urriaren 19an, ostirala, 22:00etan

ETXARRI ARANATZ

Institutura elkarrekin joan ziren Juan eta Laura. Amodiozko harremana ere izan zuten. Baina, orain, denbora pasatu da, eta bakoitzak bere bizitza egin du. Bizitza ulertzeko eta aurrera

egiteko modu ezberdinak dituzte. Laura ezkontzekoa da, eta Juan abisatzera joan da. Elkartzen direnean nerabe garaietako oroitzapenak eta ametsak gogoratuko dituzte. Jon Plazaola aktorea Juan izanen da, eta

Aitziber Garmendia aktoreak Lauraren papera egingen du.

Txalo produkzioaren *Moko zorrotza* komediak ikus-entzuleen algarak sortuko ditu, baita igarotako denboraz hausnartzeko parada ere emanen du. Etxarri Aranazko Kultura zerbitzuak antolatutako emanaldia da, Nafarroako Gobernuaren Antzerki Sarearen laguntzarekin. Sarrerak 6 eurotan eskuratu daitezke egunean bertan edo aurretik etxarriaranatz.eus-en.

BAZTERRETIK
MAR GONZALEZ
RUIZ DE LARRAMENDI

Vermeer

Rijkmuseum-eko emakume horrek / bere lasaitasun eta arretarekin / egunero / esnea ontzian jarrioten / jarraitzen den artean / ez du munduak munduaren amaiera mereziko. Wislawa Szymborska

Vermeerren irudia nahikoa da, ez du inolako azalpenik behar. Wislawa Szymborskak hori badaki, eta ulertzen du ezin dituela haren arintasuna, koloreak, argia... hitzetan jaso.

Hala ere margolariaren irudian murgildu da, eta bertatik emakumea salbatu du, haren lasaitasuna eta eskuetan eusten duen esne pitxerra. Gainerako guztia berriz kanpoan utzi du, ez omen du behar.

Eta horrela koadro berria gure begien aurrean esnatu eta mugitzen hasten da. Vermeerren irudia izateari uko egiten dio, izoztutako korrante batean betirako geldituta. Wislawaren bertsoek, amaierarik ez duen isurtze horren senean denbora oparitzen digute, eguneroko bizia, irudian geldirik dirudien esnea haren begietan jarrioten ari delako, eta esnearen korrantea mantentzen den artean, ez



duelako munduak munduaren amaiera mereziko.

Eta bat-batean, hitzen artean ezkututzen zen apokalipsiak eztanda egiten du, eta bertsoek margoan ez genuen

munduaren amaiera ekartzen digute; baina etorkizunerantz luzatzen den apokalipsia, lasaitasun eta arretarekin gozotutako akabera. Eta momentuz, gainera, margolariari esker, ez dugu munduaren amaiera mereziko.

Eta horregatik, gaur libururen batean Wislawaren hitzak zutik aurkitzen baditugu ere, Rijkmuseumera bidaliko gaituzte behin eta berriz, temati, beti izango dute urdin eta horiz jantzitako emakumearen haragia faltan. Poema poema bada ere, eta margoa margo, koadroa desagertu eta emakumeak esnearen jarioa etentzen badu, guztiok mereziko dugulako apokalipsia, heriotza eta munduaren amaiera.

Amatasunaren eta aitatasunaren gazi gozoak

'Salir de cuentas a los cincuenta' antzezlanaren izenburuko antzerkia izanen da Irurtzongo Antzerki zikloaren bigarren emanaldian

IRURTZUN

Gaur, urriaren 19an, ostirala izanen da Antzerki Zikloaren emanaldia Irurtzongo kultur etxean, 21:00etan.

Maite Redin eta Patxi Perez aktoreek guraso izanen diren bikote baten papera egingen dute. 25 urte bete zituztenetik entzun behar izan dute haien amatasunaren eta aitatasunaren inguruko iritziak. Haien erabakia izanen zela pentsatu zuten arte. Gurasoak izatera animatu direnean, iritziak jarraitzen dute. Noizko seme-alabak galderatik,

nola ausartzen zara orain galderara pasa dira. Gainera, emakumearen amaren kritikak ere entzun behar dituzte, Mila Espiga aktoreak interpretatzen duena. Ikus-entzuleek bat egingen dute agertokian ikusten duten egoera barregarriekin.

Amatasunaren eta aitatasunaren inguruko komedia garritza da Tdiferencia antzerki konpainiak aurkeztu duena. Datorren astean *Ez dok hiru 'Akustikoa'* antzezlanaren izenburuko antzerki zikloan, euskaraz.



Patxi Bisquert Oreina filmaren une batean. TXINTXUA EKOIZTETXEA

"Pertsona arrunten istorio txikiena ere da unibertetsala"

PATXI BISQUERT AKTOREA

Oreina filmean Jose Ramon pertsonaiaren papera egin du. Tasio pertsonaiarekin antzekotasun handiak dituela dio aktoreak. Martxotik Errotzen bizi da

Erkuden Ruiz Barroso ERROTZ

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten *Oreina* filma. Kritika onak jaso zituen eta Euskal Zinemaren Irizar saria jaso zuen. Koldo Almandoz da *Oreina* filmaren zuzendaria. Bisquert kasualitatez hasi zen interpretazioaren munduan eta kasualitatez iritsi da ere Arakilera.

Zer da *Oreina*?

Ibai baten inguruan kokatzen da istorioa. Ori ibaiaren paduran, hain zuzen ere. Bost pertsonaien bizimodua azaltzen da.

Bi anai daude, nire pertsonaia, Jose Ramon, anai bat da eta bestea, Martin, Ramon Agirrek egiten duena. Etxe berberean bizi dira baina kanpotik bi mundu balira bezala ikusten da. Alde bat oso apainduta dago eta bestea abandonatuta. Bi anai horien bidezko metafora bat da. Sahararik etorritako mutiko bat dago ere. Basozain ere bat dago, baita bertakoa den neska bat baina alde egin nahi duena. Inguru horretan dagoen dibertsitatea erakutsi nahi du.

Paisaiak, beraz, garrantzia handia dauka.

Beste protagonista bat da. Pelikula honek paduraren barrena nolakoa den erakusten digu. Padurako biztanleendako ere gauza bitxia izango da padura barrutik ezagutzea. Ondo ezagutzeko aukera ederra da. Animalia basatiak ere askotan ateratzen dira filmean.

Bi mundu kontrajarriak erakusten ditu pelikulak.

Dibertsitatea da gaia. Bai jendearen aldetik, baita padura

geografikoki duen dibertsitatea ere. Pelikulak oso ongi egiten duena gauza asko iradokitzen duela da. Eta ez ditu gauzak ixten. Jendea bere buruan pelikula osatzen joango da. Oso aspektu garrantzitsua da hori. **Ikusten dena baino gehiago esaten du.**

Askoz gehiago, bai. Gauza asko iradokitzen ditu. Sentsibilitate handiarekin kontatuta dago, hitz gutxiarekin asko esaten dute irudiek. Aktoreen keinuak eta begiradak nahikoak dira gauzak esateko, eta isiltasunak ere asko adierazten du.

Nolakoa da Jose Ramon, zure pertsonaia?

Gidoia lehen aldiz irakurri nuen duela 30 urte egin nuen pelikula batekin antzekotasun handiak ikusi nizkion: *Tasio*. Gaur egun kokatzen da, baina antzekotasunak handiak dira. Pertsonaia isileko ehiztaria da, askatasun grina duen pertsonaia. **Tasio izan zen zure lehenengo protagonista. Baina aktore kasualitatez bihurtu zinen.**

Lantoki batean lan egiten nuen nik. Segoviako ihesaren inguruko filma egin nahi zuten eta Imanol Uribe zuzendariak aktore profesionalak nahi zituen, baita ihesa bizitutako jendea ere. Hortaz, casting batera joateko deitu ninduten. Nik ez nekien zer zen hori ere. Baina istorioa kontatua izan behar zela uste nuen. Niretako hori zen garrantzitsuena. Proba egin

nuen eta hartu ninduten. Gero beste bat etorri zen, *Albaniaren konkista* eta ondoren *Tasiorako* proba etorri zen. Horrela hasi nintzen kate honetan.

Talentua duzu.

Hori pentsatuko zuen baten batek. Horrek aukera eman zidan lan berri bat egiteko. Egia esan ez nuen espero horrelako bizitza izatea.

Errotzen bizi zara. Nola iritsi zinen Arakilera?

Denbora luzez hiri handian bizi izan naiz. Galiziara joan nintzen bizitzera eta bertan erabaki nuen ordutik aurrera herri txiki batean biziko nintzela. Euskal Herrira itzuli nintzenean duela ia lau urte etxea bilatzen egon nintzen eta hemen topatu genuen etxea..

Zergatik ikusi *Oreina*?

Azken urteetan ikusi dudak pelikula onenetarikoa delako. Eta pelikula asko ikusten ditut. Askok iradokitzen du, izugarriko paisaiak ditu eta aktoreak oso ongi gaude. Zuzendari berri baten lana da, baina zinemaren esentzietara itzuli da. Zinema irudiekin kontatzen da. Istorioak ondo kontatzen badira, pertsona arrunten istorio txikiena bada ere unibertetsala da.

Azkenean gustatu zitzaizun aktore izatea.

Aktore izatea asko gustatzen zait. Gehien gustatzen zaidana da gidoia hartzen dudak momentutik azken filmaldi egun arte. Lan prestakuntza hori.

Osoa: www.guaixe.eus

TXIKIAK HANTITZEN: HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK MUNDUAN

BIZI
hizkuntza

IRLANDA
Euskal Herria

GALES
Euskal Herria

MEXIKO
Euskal Herria

EUROPA
Euskal Herria

EUSKAL HERRIA
Euskal Herria

TOPAKETA

Noiz:

Urriaren 20an
Larunbaterekin
Nafarroa Oinezaren
bezperan

Non:

Altsasun
lortia kultur gunean

Antolatzaileak

Laguntzaileak



Altsasuko Mikologia Elkarteak. Erdian Irantzu Garcia Agirre elkarteak kidea. UTZITAKOA

"Ez gara larritu behar, onddoak aterako dira"

Uda lehorra izan da eta, ondorioz, zizak eta onddoak erregu eske ari dira. Hala ere, egoera ez da larritzekoa Irantzu Garcia Agirre Altsasuko Mikologia Elkarteak kidearen iritziz. Mikologia astea eginen dute urriaren 23tik 28ra, baita erakusketa ere

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nolako urtea izaten ari da?

Jende guztiak dio eta agerikoa da: uda lehorra izan denez onddoak eta zizak nahiko makal ari dira ateratzen.

2 Aurreko asteburuan euria egin zuen, positibismoa sortu zuen elkarteak?

Gu ez gara oso baikorrak. Badaramagu denbora luze euririk gabe, nahiz eta aurreko astean

litro asko erori ziren, lurra lehorra dago. Hezetasun handia behar dute, hezetasuna lurrian egon behar da. Jendeak uste du euri pixka bat egiten duenean aterako direla. Eta ez.

3 Larritzeko moduko egoera da?

Ez da larritu behar. Urte guztiak ez dira berdinak. Baratzetan gertatzen den bezala gertatzen da: urte batzuetan tomate asko daude eta beste batzuetan gutxi. Uda hau lehorra izan

da, baina zizen garaia oso luzea da. Garai honetan ez badira ateratzen hurrengo urtera arte itxoin beharko dugu.

4 Garai honetan zer ziza espezie nagusitzen dira?

Erakusketa antolatzen dugunean 200 edo 300 espezie inguru erakusten ditugu. Ezagunenak dardarik gabe onddoak dira: onddo beltza, onddo txuria edo udaberriko onddoa... Zizen artean badago hildakoen tronpeta dei-

tutakoa, gorringoa, galanperna dago ere... Askok dira.

5 Zizetan eta onddoetan geroz eta interesa handia dago.

Bai. Gure artean asko hitz egiten dugu eta, batez ere, zizazaleen artean nork hartzen duen lehenengo onddoa eta nork hartzen dituen gehien komentatzen dugu. Lekuak sekretuak izan ohi dira, nahiz eta geroz eta zailagoa izan.

6 Onddoak dira preziazuenak.

Familia guztietan jan izan dira eta ezagunenak dira. Kolorez oso errazak dira ezberdintzeko eta itxura potoloa dute. Orduan oso erraza da onddoak hartzea. Zapoz ere oso onak dira. Zizak hartzen kontu handiarekin ibili behar zara. Ezagutu gabe eta ziur egon gabe hobe da ziza bere lekuan utzi.

7 Bestela, ondorioak oso larriak izan daitezke.

Ziza batzuen pozoien sintomak egun batzuetan ager daitezke eta ordurako ez dago ezer egitekorik. Orduan, horrelako arriskua dagoela jakinda hobe da ez arriskatzea edota elkarrean galdetzea.

8 Elkarrean Mikologia Astea antolatzen du. Nolako dator aurten?

Ferietako aurreko astean hitzaldiak antolatzen ditugu eta adituek hainbat gai buruz hitz egiten dute. Esaterako, zizen erabilpenari buruz, onddoen garrantziaz eta ziza pozoitsuei buruz hitz eginen dute aurten. Helburua zizen nondik norakoak jendearengana iristea da eta horrela arriskuak ekiditea.

9 Altsasuko ferien egunean erakusketa antolatzen duzue.

Urriaren 28an eginen dugu Garbitoki eraikinean. Jarduera garrantzitsuenetarikoa izan ohi da. Zizak hartzea joaten gara eta polita da. Aurten ziza gutxi daude, erakusketa egiteko baten bat lortuko ditugu.

10 Nondik datorkizu zizazaletasuna?

Beti gustatu izan zait naturarekiko harremana eta Lleidan ikasten nengoela asko gogoratzen nintzen zizekin eta familiaren zaletasunarekin. Proiektua horren inguruan egin nuen eta zaletasuna handitzen joan zen.

11 Zein da zure uste zizarik perfektuena?

Ezin dut bakarrik bat aipatu. Hildakoen tronpeta oso ona da. Eta niri asko gustatzen zaidana, baina jendea aspertuta dagoela, azpibeltzak edo txanpiñoia. Ilusio handia egiten dit borobil txuri perfektu horiek aurkitzea.

Zure irudia
BERRITU

Logoak, bisita txartelak, publicitateak, flyerrak...

948 564 275
 Foru plaza, 23-1. Altsasu
 gk@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus